

Arrasate

P R E S S

1908ko
Apirilak 30
393. zenb.

IRITZIA
AITOR
ITURRIAGA

KULTURA
AINHOA
AGIRREAZALDEGI

30 GALDERATAN
ARRATE
VILLAMOR

IKUSPEGIA
ROSA
MONDRAGON

KIROLAK
AITOR
KORTABARRIA

Orain
lehen legez...

Aupa
Alaves!

ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

Maila guztiak, EGA eta
Alfabetatzea

Matrikula epea zabalik
otsailaren 9ra arte
Beka sistema

EZ UTZI GEURE GARRA ITZALTZEN!



Informazioa eta matrikula:
ERDU AEK EUSKALTEGIA
Garibai kalea 14, 3
(Sindikatu etxea)
Tel.: 77 03 69
Udalaren laguntzaz



Izena eman

EUSKALTEGI ETA BARNETEGIETAN (FORU eta ONDARROARI, T.F. 94/1625 35 96)

EUSKARA GALDUZ GERO AKABO GURE HERRIA




VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ■ Tel.: 79 78 10 ■ ARRASATE
Ibargarai, 24 ■ Tel.: 76 12 21 ■ BERGARA
Rioja, 17 ■ Tel.: (945) 25 88 92 ■ GASTEIZ

*Zure ongizatea
babezteko gaude*



VENTANAS SAN MIGUEL



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

Emakumeak alardean bai!

Emakumeen oinarriko eskubidea da Irun eta Hondarribiko alardeetan soldadu gisa desfilatzea. Horixe da Justizia Auzitegi Gorenak erabaki duena, kaleratu berri duen sententzian. Gogora dezagun, askotan gaurko gizartean ahaztuta dugun Konstituzioaren 14. artikulua famatu hori: "lege aurrean denok gara berdinak. Ezin da inolako bereizkeriarik egin jaiotze, arraza, sexu, iritzi edo beste arrazoi pertsonalengatik".



Rosa Mondragon

Kasu honetan, izandako ohiartzunari esker, Irun eta Hondarribiko emakumeek egindako borrokagatik eta pertsona publiko ugarik egindako adierazpenengatik, Auzitegi Gorenak arrazoia eman die emakumeei. Ez da horrela gertatzen beste hainbat kasutan, eta askotan ez da aipatuta-

"Aurrera begira ere, borroka egin beharko dugu geure eskubideen alde"

ko 14. artikulua hori errespetatzen.

Aste honetan Bidasoaldeko Emakumeek eginiko adierazpenetan pozik agertzen ziren: "Kosta zaigu, baina lortu dugu. Oso pozik gaude". Hala ere, botere publikoek alardean desfilatzeko eskubide hori gauzatzen utziko dioten zalantza agertu zuten emakumeek, eta egia esan, badute arrazoirik hori

pentsatzeko. Sententzia prentsan kaleratu eta ondorengo egunean, alarde tradizionalaren aldekoek ez dutela Auzitegi Gorenak esandakoa onartuko adierazi zuten, eta arrazoi historikoak jartzen dituzte aitzakia bezala. Ez

dezatela ahaztu, emakumeek modu aktiboan hartu zutela parte 1522ko guduan eta eungo alardeak ezberdintasun asko dituela garaipenaren ostean egin zuten desfilearekin. Honela zihurtatu berri du EHUK egindako

txosten historikoak.

Egunkari batzuetan irakurri dut, alardeko agintariek festa pribatizatzeak aukera izan dezaketela eta honela haien erabakiaren arabera litzatekeela emakumei alardean parte hartzen uztea edo ez. Jarrera hau lehen aipatu dugun artikuluaen kontra joatea dela pentsa daiteke, izan ere elkarte pribatuak antolatzen badute alardea eta ez badiete emakumei parte hartzen uzten, baztertuak izango dira berriz ere.

Joan den ekainean Irunen, arazo eta irain askoren artean izan arren, lortu zuen emakumezkoen konpainiak desfilatzea. Ikusteko dago, datorren udan euren herrietako festetako ekitaldi nagusian parte hartu ahal izango duten edo ez. Dena dela, orain arte lortutakoa ikusirik, aurrerapauso handia eman dela pentsa dezakegu eta aurrerantzean ere gure eskubideak gauza daitezen borroka egin beharko dugula. Alarde gure errealitatearen ispilu jo dezakegu momentu honetan. Ziur nago piskanaka lortuko dela emakumeen presentzia festa giroan eta baita gizartean oro har.

393. zenbaki honetan

1998ko urtarrilaren 30ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	28/29
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/22	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepassoa.....	10	30 galderetan	26	Fotozaharra	34

Ikuspegia

Rosa Mondragon **3**

Euren ikuspegitik

Aitor Iturriaga **8**

Aurrez aurre

Julen Arexolaleiba **24/25**

Kulturaren txokoa

Ainhoa Agirrezaldegi **29**

Asteko gaia

Arrasatearrak Alaves taldean **17/19**



Arrasatearrek Arabako taldeari urteetan zehar egin dioten ekarpena ekarri nahi izan dugu orri hauetara.



ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
 Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcasi, Patsi Montero. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26). **Disenatzailea:** Goli Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Unbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Latorra, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozuela, Jabi Luengo, Maitte Barreira. **Banaketak arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). **ARRASATE PRESS. Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaloko argazkia: Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileraren laguntza

30

ostirala

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ SAN BALEIXO JAIK

Arratsaldeko 20:00etan jaien hasiera. 21:00etan auzo afaria eta ondoren, *Joxe Gardoki* soinu-jolearekin erromeria.

■ EKON TALDEA
JAM ARETOAN

Arrasateko *Ekon* taldeak *Zurrumbilo Kaotikoa* disko berriaren aurkezpena egingo du Bergarako *Jam* aretoan. Arrasatearrekin batera, *Parasma* eta *Etsaiak* taldeek joko dute. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da. Prezioa: 2.000 pèzeta.

31

larunbata

■ ZINEA

Wallace & Gromit. Alai zineman, arratsaldeko 16:45etan. *Titanic*. Alai zineman 18:30etan eta 22:00etan.

■ SAN BALEIXO JAIK

Goizeko 11:00etan futbito partiduak. Arratsaldeko 15:00etan ume eta gazteen-tzako jolasak. 16:00etan *Gorritiren* eskutik jaialdia. 17:00etan mus txapelketa. 23:00etan erromeria *Anaiak* taldearekin. Goizaldean txerri harrapaketa eta txokolata.

1

igandea

■ ZINEA

Wallace & Gromit. Alai zineman, arratsaldeko 16:45etan. *Titanic*. Alai zineman 18:30etan eta 22:00etan.

■ SAN BALEIXO JAIK

Eguerdiko 12:30etan meza San Baleixo ermitan. Arratsaldeko 14:00etan buruhandiak eta trikitilariak.

■ ARRASATE
MUSIKALEN
25. URTEURRENA

Arrasate Musikalen 25. urteurrena dela eta, Elgoibarko Udalaren txistulari taldeak kontzertua eskainiko du Arrasateko plazan eguerdiko 13:00etan.

■ AL ANDALUS
ELKARTEAREN
VIII. URTEURRENA

Goizeko 11:00etan *Coro Rociero* taldearen emanaldia eta ondoren luntxa. 13:00etan *Alegrias de la sierra* abesbatzaren emanaldia. 14:30etan herri bazkaria. Arratsaldeko 16:00etan jaialdia Barakaldoko *Hijos de Almarcha* eta *Sueños de Andalucía* taldeekin.

2

astelehena

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

3

asteartea

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

5

osteguna

■ ZINEA

Titanic. Alai zineman, arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ ZINE KLUBA

Clockers. Amaia antzokian, gaueko 21.30etan.

LAN ESKAINTZAK

Plaza hauek hornitzeko deialdi irekia:

- ZERBITZUETAKO IKUSKATZAILEA
- 2 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE (1 balio urrituentzako)

UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK (lan poltsa)

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke
Izena emateko epea: otsailaren 5era arte, beraru barne.

Arrasaten, 1998ko urtarrilaren 25ean
ALKATEA



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA

■ **AEKn MATRIKULA
EPEA ZABALIK**

Arrasateko AEKn matrikula epea zabalik dago otsailaren 9a arte. Berri gehiagorako, deitu 77 03 69 telefonora.

■ **LIBURU JOSTE
ERAKUSKETA**

Otsailaren 2tik 8ra bitartean, erakusketa egingo da liburu josteari buruz Monterronen. Orduetgia: egunero 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte. Maite Barandiaranek ikastaroan zehar egindako lanak jarriko dira ikusgai.

■ **KARIBEKO DANTZAK**

Otsailaren 23tik martxoaren 25era sakontze mailako ikastaroa izango da, Julio Lantiguak zuzenduta. Eskolak astelehenetan eta asteazkenetan emango dira, arratsaldeko 19:30etatik 21:30ak arte, Musakolako saloian. Matrikula 4.000 pta. Ikasle eta langabe-tuentzat 2.500 pta. Berri gehiago Gazte Bulegoan (77 00 65).

■ **UR ETA ZABOR ZERGA**

1997ko laugarren hiru hilabeteko ur eta zabor zergaren ordainagiriak, 1998ko urtarrilaren 26tik martxoaren 30a bitartean egin behar dira, borondatezko epean. Epea pasatu eta ordaindu barik dauden

ordainagiriak, %20ko gainkargua izango dute.

■ **EGUZKI BIDEZKO
ASMAKARIAK HARRESI
ARETOAN**

Urtarrilaren 31tik otsailaren 9a arte Eguzki indarrak eraginda dabil-tzan tresnen erakusketa egingo da Harresi aretoan. Orduetgia 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte.

■ **ARRASATEKO
ZIKLOTURISTAK**

Bazkideen baimenak berritzeko epea zabalik dago. Taldeko bazkide

izan ez, baina zikloturista baimena nahi duenarentzako prezioa 8.500 pezeta-koa da. Horretarako, *Tandem Ciclismo* dendara jo. Baimena egin eta era berean taldeko bazkide izateko ordaindu beharre-koa: 11.500 pezeta.

■ **FAMILIA ETA GIZARTE
HEZIKETARAKO
ZENTRUAK
ANTOLATUTAKO
IKASTAROK**

Gitarra ikastaroa ostiraletan izango da arratsaldeko 17:50ean. Autokontrol ikastaroa ostegunetan, arratsaldeko 16:00etan. Ikastaro bietan izena emateko epea zabalik

dago. Berri gehiago jakiteko Familia eta Gizarte Heziketarako zentruak Santa Teresan duen etxera jo, (79 04 59).

■ **MUSAKOLAKO
KIROLDEGIKO OHARRA**

Musakolako kiroldegi barruko igerilekuan garbiketa egin behar dutenez, otsailaren 2tik 8ra bitartean itxita egongo da.

■ **ARTE MARTZIALEN
IKASTAROA**

Arrasateko Tai Chi Elkarteak, Tai Chi, Chi Kung, Yoga eta Meditazio ikastaroa antolatu du martxoaren 6tik 8ra bitartean emateko. Ikastaroa Zestoako Sastarrain baserrian emango da. Irakaslea: Valentin Zurbarano. Izena emateko azken eguna otsailaren 27a. (71 41 91).

■ **EUSKAL DANTZAK**

Euskal Dantzen ikastaroa Lore Gaztea taldeak zuzenduko du. 10-14 urte bitartekoei zuzenduta doa eta otsailaren 18tik San Joanak arte emango da. Orduetgia, arratsaldeko 18:30etatik 19:30etara. Matrikula 1.000 pta. 15 urtetik gorakoei zuzendutakoa martxoaren 6tik San Joanak arte izango da. Ostiraletan 19:00etatik 20:30ak arte. Berri gehiagorako Gazte bulego- ra deitu (77 00 65).



■ **BONBA TALDEAREKIN SAGORDOTEGIRA ETA DERBIRA**

Bonba taldeak derbi egunerako, otsailaren 8rako, Sagardotegira irteera antolatu du taldeko bazkideentzat. Bazkaldu ondoren, Anoetara joango dira. Autobusaren eta bazkariaren prezioa 2.500 pezeta. Izena Irati tabernan eman behar da, astearte baino lehen. Bestalde, Bonba taldeak 15 sarrera ditu salgai derbirako eta sarrera horiek Bonba taldeko bazkideen artean saltzeko izango dira.



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 30**
 - Gaeuz: Morales. San Andres.
- Larunbata 31**
 - Gaeuz: Azkoaga. Ferrerías.
- Igandea 1**
 - 10:00ak arte: Español. Iturriotz.
 - Gaeuz: Guallar. Bergara.
- Astelehena 2**
 - 10:00ak arte: Corcuera. Musakola.
 - Gaeuz: Estella. Bergara.
- Asteartea 3**
 - 10:00ak arte: Iñizar. Erguin.
 - Gaeuz: Mozos. Bergara.
- Asteazkena 4**
 - 10:00ak arte: Amezua. Santamaina.
 - Gaeuz: Camacho. Bergara.
- Osteguna 5**
 - 10:00ak arte: Zabala. Zarugalde.
 - Gaeuz: Puy. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritoxeak**
 - Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 - Igualatorria 79 05 00
 - Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 - (emakumeak) 79 44 11
 - Buru osasunerako zentrua 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 - Bergara 76 55 76
- DYA**
 - Antzuola 78 71 57
- Anbulatorioak**
 - Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 - Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 46
 - Espezialitateak 77 05 78
 - Oñati 77 12 64
 - Oñati 78 08 52
 - Eskoriatza 79 98 58
 - Aretxabaleta 79 74 58
 - Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 - Gipuzkoako ambulantziak 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 - Oñati 78 04 11
 - Bergara 76 14 69
 - Arrasate 79 14 39
 - Aretxabaleta 79 10 52
 - Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 - Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 - Udal taldea 79 09 00
 - Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 - Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 - Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 - Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 - Gasa 900 40 05 23
 - 79 78 44
 - 79 76 78
- Garraioak**
 - Taxiak 79 12 22
 - PESA. 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 - Iturbide Egoitza 79 72 11
 - Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 - KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
 - Monterron 77 01 05
- Irratia**
 - Arrasate Irratia 79 58 77

ZORIONAK ZALDIBARKO ANTOLATZAILEEI!

Zaldibarko txapelketan jokatzen genuen talde bat gara, *Orlando Piratas*. Iaz txapelketa irabazi genuen eta antolatzaile batzuei ez zien graziarik egin atxabal-tar batzuek irabaztea, eta gutxiago *Orlando Piratasek*. Sarien artean babesleak oparitutako kamiseta bana jaso genuen, baina guk aurretik beste babesle batekin konpromezua genuenez, ez ditugu kamiseta hauek erabili. Hau ere ez zitzaien antolatzaileei gustatu eta ATBko kamara aurrean errespeto falta zela esateaz gain, hauek izan ziran Aritz Azkarragaren hitzak; "Ez daitezela mesederik eskatzera etorri antolakuntzara, hori garbi utziko dut orain eta gaur". "Kontuan har dezatela Arrasaten jokatzen dutela... Guk ez dugu hau onartuko" eta bukatzeko "Eurek atera dute problema". Ez da bakarrik esan zuena, nola esan zuen ere kontuan hartu behar da, Augusto Pinochet diktadorea zirudien. Beraz, pentsa dezakezue nolakoa izan den gure arteko giroa. Baina azkenean lortu dute euren helburuetariko bat, *Orlando Piratas* txapelketatik kanpo uztea. Zergatik? Bi partida arbitratzera ez azaltzarren. Arautegia eskuan dutela bota gaituzte, hori egia da, eta gu motel ibili gara, bagenekielako ahal bazuten kalera botako gintuztela. Baina orain arautegiari hain gogor


eusten badiote, zergatik horrenbeste iskanbila kamiseten arazoarekin guk ez bagenuen arautegitik kanpo ezer egin? Gainera, gure alde esan beharra dago ez zela gure asmoa bi partida horiek ez pitatzea. Normalean jokatu eta hurrengo partida pitatzen da eta guk ez genekien jokatu aurreko partidua pitatzerik izan zitekeenik, eta horrela harrapatu gaituzte, ezjakintasunean. Honek kezka bat sortzen du; nola izan daiteke talde bakoitzak 28.000 pta., fiantsa barne, jarri eta horrenbeste jende mugitzen duen txapelketa batek hain informazio gutxi eskaintzea? Zein da antolatzaileen lana? ARRASATE PRESSEn gutxienezko informazioa agertu behar da eta hori antolatzaileen ardurada. Horrela izan balitz, guk oraindik txapelketan jarraituko genuke. Beste galdera bat; zer gertatzen da antola-

tzaileak ez direnean agertzen? Fiantza galtzen dute? Kalera bota behar zaie? Hau gertatu da, bai iaz eta baita aurten ere. Txapelketa serioa bada, izan dadila denon alde-tik. Kontuak kontu, gu kalean gaude, partidurik galdugabe, eta horregatik zoriontzen diegu antolatzaileei eta bereziki Aritz Azkarragari, gu baino argiago ibili direlako. Aurtengo txapelketa irabazteko aukerak kendu dizkiguzue, baina inoiz ez diguzue kenduko iazko txapelketa. Txapelketa hori Aretxabaletara eramán genuen eta trofeoa ikusi nahi duenak Aretxabaletako Azkena Tabernara, gure babeslea, joan beharko da. Bukatzeko, gutun hau irakurri eta gero garbi dago txapelketa handi gelditzen zaiela antolatzaileei, baina beti esan ohi da, ezin sagarrondoari makatzak eskatu.

Orlando Piratas taldea

Joxe Aranzabal, zuzendari berria

Joxe Aranzabal, ARRASATE PRESSEko sortzailariko bat eta lehen zuzendaria izan zena, itzuli egin da bere lehen etxera. Hemendik aurrera, ARRASATE PRESSEko eta ATBko erredakzio burua izango da, komunikabide bien lanak bateratuz. Ongi etorri! ARKok eskerronik berona adierazi nahi dio, bestalde, Maria Agirre-




ri, azken bi hilabete t'erdi hauetan behin-behineko zuzendaria izan denari, egin duen lan eskergatik.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Euskaltelen zerbitzua kontratatzekeo asmorik bai?



Jose Mari Loiti
Arrasateko Udala

Euskaltekin harremanetan gaude, zerbitzua kontratatzekeo. Arrazoiak bi dira: gure herriko enpresa izatea eta merkeago dela.



Iñaki Alzibar
Danka Multimedia

Bai, arrazoiak garbia da: prezioa. Enpresei kontratu bereziak eskainiko dizkietela entzun dugu eta prezioa askoz ere gehiago jaitsi daiteke.



Esther Urkia
Nacex Mezulariak

Telefonoaren faktura 300.000 pta ingurukoa izaten dugula kontuan hartuta, informazio gehiago jasotzea interesatzen zaigu. Laster deituko dugu.



Agustin Olarieta
Eskola Politeknikoa

Eskaintzak eta kontraeskaintzak entzuteko prest gaude. Zerbitzuaren kalitatea, jarraikortasuna eta fidagarritasuna, eta azkenik, prezioa hartuko ditugu kontuan.




Mari Sanchez
Etxeko andrea

Telefonikarekin segitzeko asmoa dut: ohituragatik, eta aldatzeko egin behar diren gestioak ez egitearren.



Rosa Mari Aldai
Langilea

Ikusi izan dut Euskaltelen inguruko propaganda, baina ez diot kasurik egin, berri gehiago jaso arte, Telefonikarekin segituko dut.



Francisco Perez
Langilea

Ez dugu ezagutzen Euskaltelen eskaintza. Beraz, oraingoz, Telefonikarekin segituko dut.



Marcelino Santos
Langilea

Uste dut enpresek eta telefonoan gastu handiak dutenek irabazten dutela aldatzarekin. Partikularrontzat ez dut uste alde handirik dagoenik. Beraz, oraingoz, ez dut aldatuko.

Txitxinpe
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
Gerriko ala bizkarreko minez zabilta?
Lunbago eta ziatikarako faja elastikoak ditugu zuretzat
Zugan pentsatuz, beti laguntzeko prest
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

JUBAR
ATEAK. S.L.
• BURDINEZKO ATEAK
ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.
Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

USTEAK USTE

**Kaixo,
berriro ere**


1 991ko uztailaren 19an "Agur eta banoa" idatzi nuen. Arrasate Pressen 115. zenbakian izan zen. Harrezkero, euriak bide luzea egin du eta aldizkari honek ere bai, zorionez.

Sei urte eta erdi igaro dira txoko hau utzi nuenetik eta hemen xe nauzue berriro ere. Ez naiz orain esaten hasiko Fray Luis de Leonek edo Tarradellasek —bere katedrara lehena eta Bartzelonara bigarrena itzuli zirenean— esan zituzten esaldi famatu haiek. Beude daudenetan. Kazetaria naiz eta hurbil-hurbiletik sentitzen dudana kazetaritza proiektu batera itzultzen naiz. Hori da orain esan dezakedana.

Urte berezia izango da, gainera, aurtengoa, abenduaren 2an hamar urte beteko dira eta, Arrasate Press lehen aldiz kaleratu zenetik. Gaur, hain zuzen, aurten hamar urte beteko dituzten neska-mutikoak izan ditugu aldizkaria bisitatzen. Haiei begiratzea nahikoa izan da konturatzeko orain hamar urteko jaioberririak zenbateraino aldatu diren.

Pozten naiz berriro ere zuekin egoteaz.

Joxe Aranzabal



Aita Santua (?) Kuban

Aitor Iturriaga

Badakit jendea kokotearaino dagoela gai honetaz, baina bidaia horri buruz zer edo zer idaztea eskatu didate ARRASATE PRESSEkoek, eta hauek ez dute ezetzik merezi.

Joan Paulo II.a edo Karol Wojtyla nor den eta bere curriculum denok ezagutzen dugu gutxi gorabehera. Beraz, bidaia berak eragin dizkidan sentimenez arituko naiz inor aspertu gura barik.

Hasieratik aitortzen dizuet kontu honek piskat harritu nauela: dibortzioa eta abortoa gaitzetsi, HIESaren garaian kondoia Luziferren asmakuntzat jo... Zer arraio egiten du gizon honek halako ideiak aspaldi gaindituta dituen herri honetan?

Baina, zer diot? Fidelek

berak gonbidatu du eta Fidelek berak esan du meritu handia duela Joan Paulo II.ak Elizaren hainbat akats historiko aitortu dituelako: bidegabekeria izan zela Koperniko eta Galileo zigortzea Lurra eguzkiaren inguruan dabilela esateagatik (zein ausardia!); edota Inkisizioak gehiegikeriak egin zituela jendea torturatu eta sutara zigortzen zuelako Jaungoikoaren izenean. Meri-

“
Joan Paulo II.ak neoliberalismoa gaitzetsi du, baina bestelako praktika du
”

tu handia, bai. Bostehun urte pasatu behar izan dira horretarako.

Berak ordezkatzeko duen Eliza ofizialak ez du abiadura bera erakutsi, pobreen alde eta aberatsen aurka lan egin duten hainbat kristau eta apaizen aurka jotzeko.

Hitzez neoliberalismoa gaitzetsi eta, ekintzetara pasatzerakoan justu kontrakoa: Askapenerako Teologia borrokatu; apezpiku-batzarretarako aberatsen aliatuak izendatu; Vatikanoko gobernura sekta arriskutsutzat sailkatuta dagoen Opus Dei erakundea eraman; eta abar asko.

Beraz, zer eman diezaiotke Aita Santuak Berdintasunaren Aberritzat dugun Kubari?

Egia da Kubak aukera gutxi duela bere benetako errealitatea munduaren aurrean agertzeko, kontuan izanik berri agentzien %80 estatu-batuaren eskuetan dagoela. Bestalde, bidaia honek ezagutzen ez ditugun ondorio diplomatiko onak izan ditzake uharte karibearrarentzat. Eta badakit ez dugula eskubiderik hain egoera berezia bizi duen herri horren jokabidea epaitzeko.

Halere, Fraga Iribarneren bisitarekin gertatu zitzaizkidan bezala, orain ere telebista itzaila behar izan dut sarri.

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

astea bi hitzetan

■ **Tabernariak ordutegi berria erakutsi beharko dute**

Arrasateko tabernariak eta ostalaritzan ari diren guztiak laster jasoko dute udaletik Eusko Jauriaritzak era honetako saltegiengiztat onartu duen ordutegi berria. Eskuratzen dutenean, gainera, bezeroen begibistan jarri beharko dute, bakoitzak argi eta garbi azalduz zer ordutik zer ordura egon daitekeen zabalik. Hau xe da Euskal Udalen Elkar- teak Arrasateko Udalarari jakinarazi diona, behintzat. Eudelen oharrean, gainera, zehaztu egiten da ordutegiak jakinarazteko afixak edo kartelak zer neurritakoak izan beharko diren.

■ **San Joan parrokia zaharberritzeko dirua**

Arrasatearrek dagoeneko 89 milioi pta. eman dituzte Arrasateko San Joan Bautista parrokia zaharberritzeko. Orain arte egindako lanak ordaintzeko erabili den diruaren laurdena, alegia. Diru hau borondatez ematen da, hileroko kuotak ordainduz.

Orain artean 314 milioi pta. gastatu dira zaharberritze lanetan. Erabateko kostoa, ostera, 580 milioi pta.koa izango dela aurreikusten da. Dagoeneko bost urte badira lanak hasi zirenetik eta abiada onean doazela esan liteke.

■ **S. Felipe anaidiaren batzar orokorra**

Joan den igandean S. Felipe Apostol anaidiak batzar orokorra egin zuen. Urteko jardueren berri eman eta gero, erabaki garrantzitsu bat hartu zen: hildako bazkide bakoitzeko anaidiak banatu ohi duen dirua 45.000 pta.ra igotea.

Oraindik ere Angel Arregi Axeri da lehendakaria. Lehendakariordea, berriz, Joxe Ramon Urkia, Joxe Ramon Lezeta diruzaina eta Jose Ignazio Elorza idazkaria.

1997an 11.400 bazkide zituen anaidiak, aurreko urtean baino 225 gehiago.

“ Azkenik, (HBren Mahai Nazionaleko kide izateko) zalantzazko egoera honetan Jone Goirizelaia abokatua eta Xabier Zubizarreta euskal parlamentario eta Arrasateko alkate ohia daude. Hala ere, ezker abertzaleko iturri seinalatuek diotenez, ziurtzat eman daiteke sartuko dituztela HBko zuzendaritzan”.

EL MUNDO
1998ko urtarrilaren 25ean

“ (Arrasateko Danka Multimedia) enpresako bultzatzaile bien iritzi, ezinbesteko lau ardatz daude proiektu bat kolokan jar ez dadin: ‘Sinistu egin behar duzu egiten ari zaren horretan, eta ez bakarrik bultzatzaileek, talde osoak baizik; ideia berritzailea izan behar da, gutxienez ikuspegi desberdina eskaini eta merkatua izango duena; errealista izan beharra dago eta nork bere gain hartu sortuko diren kostoak, eta horrek ez du esan nahi dirua zeuk eduki behar duzunik, baizik eta gai izango zarela premiazko diru laguntzak, kredituak edo inbertsioak bilatzeko. (...) Laugarren faktorea halabeharra da, zoria, aukera, toki egokian egotea une egokian, hori egia da”.

EL CORREO
1998ko urtarrilaren 25ean.



SUSTO GALANTA

Zubillagako suhiltzaileek Zeskubete lan izan zuten joan den ostiralean Arrasaten. Arratsaldeko ordubiak aldera, sua piztu zen Otalora kaleko etxebizitza batean. Kalteak dexentekoa izan ziren suak hartutako etxebizitzan, baina zorionez, inork ez zuen bestelako minik izan. Uneri larrienak bizi izan ziren Hasier eta Aitor, lau eta urtebeteko anaia txikiak harrapaturik geratu zirenean laugarren solairuko etxean, umezainarekin batera. Azkenean, suhiltzaileen eskilaretan jaitsi zituzten.

M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Ipek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Obenerrekako jolastokia hobetzeko 15 milioiko proiektua onartu da

Obenerreka kaleko haur jolastokia egokitzeko, 15 milioi eta erdi pezetako proiektua onartu du udalaren Gobernu batzordeak.

Jolastokia, 70. hamarkadan egindakoa, egoera penagarrian dago. Horregatik lanen kostoa handia. Aurrekontuaren %40 jolastokiaren behealdeko saneamenduan gastatuko da. Jolastokiaren azpian, kaleari izena ematen dion erreka pasatzen da. Azpialdearen egitura indartu eta trinkotu egin beharko da. Xabier Gallastegi udal teknikariaren esanetan, horrek proiektuaren aurrekontua garestitu du. Horrez gain, gaur egun jolastokiko sarrera diren eskilarak botako dira hormak jartzeko. Inguruko zorua ere konponduko da.

ZALDIBARREKO JOLASTOKIAREN ANTZERA

Jolastokiko altzairuei dagokienez, Zaldibarren dauden antzerakoak izango dira eta han bezelaxe, gomazko zorua



Zaldibarreko jolastokiaren antzera geratuko da Obenerrekakoa.

ipiniko da haurren segurtasunerako. Ziburuak adin desberdinetarako egokituak izango dira. Pinponeko bi mahai eta elbarrituei egokitutako iturria ere jarriko dira. Jolastokia inguratuz, konpreteko hesia jarriko da, sarrera bakar batekin. Zuhaitz handiagoak, eserlekuak eta sei kale-argik osatuko dute jolastokiaren errediza.

Lan hauen ondoren, ganorazko jolastokia izango dute

haurrek eta kanpoko itxura hobetu egingo da. Gainera, itxura errektangularra emango zaio, aldameneko errepede itxi bat aprobetxatuz. Beraz, Obenerrekako neska-mutikoen jolasteko toki gehiago izango dute. Udaleko hirigintza zerbitzuek aurreikusten dutenez, lanak martxoan hasi eta ahal izanez gero, uztailan, auzoko jaiak baino lehenago, bukatuko lirakeke.

Osoko bilkura azkarra

Astelehen goizean burututako osoko bilkura azkarra izan zen. Bilkurako zazpi puntuak bost minutuan onartu zituzten zinegotziek, dena ondo lotuta ekarri zuten eta. Ez zen eztabaidarik izan, ezta desadostasunik ere. Gairik aipagarriena A-20ko hirigintza planean egindako aldaketa izan zen. Urbanizazio planaren arabera reparzelazioa egin zen A-20an. Kontuak lehen zeuden moduan, 1.000 m²ra iristen ez ziren lantegi txikiak elkartu beharra zuten, legeak ezarritako gutxieneko eremura iristeko. Asteleheneko bileran, ordea, partzelaren gutxieneko eremua txikitzea onartu zen, enpresa txikiak zituzten arazoak saihesteko. Hemendik aurrera, beraz, 400m² izango da partzelaren gutxieneko eremua.

Udalaren hainbat igo-gailuk mantenimendua behar dutela eta, bestalde, zerbitzu hori kanpoko enpresa bati adjudikatzea erabaki zen.



MIREN GARAIren zentru mediku-estetikoak Peeling-gaztetzeta-tratamendu berria jarri duela jakinarazi nahi dizue.

Horretaz gain:

- *Gizentasunaren kontrako tratamendua, dieta pertsonalizatuekin.*
- *Barize tratamendua.*
- *Kirurgia estetikoak (bularren handitze edo txikitzea, liposukzioa, eta abar.)*

Ramon Aginaga doktoreak egina.

Eta era guztietako tratamendu estetikoak: depilazioa, aupegiko azalaren garbiketa, depilazio elektrikoa (betirakoa) Blenz sistemarekin, etab.

MIREN GARAIEN ESTETIKA ZENTRUA

Zarugalde kalea, 23.zkia. 2.ezk. • 79 96 90

Batzorde berezia osatu da Santamainako txabolen arazoak konpontzeko

Joan den zapatuan Ignazio Jimeno, Ingurugiro zinegotzia, eta ingurugiroko udal teknikaria, Santamaina atzealdean txabolak eta ortuak dituzten lagunekin bildu ziren. Guztira berrogeita hamar bat lagun dira hantxe txabola eraiki edo ortua landu dutenak. Bileraren helburua, txabolek Santamainako bizilagunei sortzen dizkieten kalteak saihestea zen. Udal ordezkariak, txabolak botatzearen aldeko arrazoiak aurkeztu zituzten. Txabolen jabeek, ordea, txabolekin segitzearen alde egin zuten.



Txabolak dauden tokian berdegunea jartzeko asmoa azaldu dute udal ordezkariak.

BATZORDE BEREZIA

Udalaren eta txabolen jabeen arteko lehen harremana izan zela kontuan hartuta, oso baikor azaldu da Ignacio Jimeno: "Oso baikorra izan da lehen bilera hau. Bagenekien txabolekin segitzea nahiko zutela, baina lehen urrats bat emateko balio izan du. Oraingoz, batzorde berezi bat eratu dugu txabolen jabeen lau ordezkariarekin". Batzorde

berezi horrek arazoari irtenbideak emateko lan egingo du hemendik aurrera.

BERDEGUNEA

Udalaren helburua txabolekin bukatzea da. Izan ere, Santamainako bizilagunek, sarritan salatu dituzte txabolek sortzen dituzten hondakinak, keak

eta isuriketak. Txabolen jabeen esanetan, zikinkeriak sortzen dira, baina denon ardurarekin lekua garbiago egon daitekeela azaldu zuten.

Bestalde, etorkizunerako asmorik badago txabolen lursailerako. Udal teknikariak planoak erabiliz erakutsi zuten, Santamainako atzealde-

an berdegune bat egiteko asmoa dago. Berdegunea konstruktora batek egokituko luke etxebizitzak eraikitzekotan. Ingurugiro zinegotziak, argi utzi zien jabeek txabolak nahi-taez bota beharko direla. Hori dela eta, txabolentzat beste leku bat bilatzeko proposamena aztertuko dute.

Familia portugaldarren haurrak garbitzeko lagun bat kontratatuko du Udalak

Arrasateko Udalak Zaldispeko aparkalekuan bizi diren bi familia portugaldarren haurrak garbitzeko etxelaguntzailea kontratatzea erabaki du. Laguntzaile hau sei haurren garbitasunaz arduratuko da egunero, ordube-

tez. Asmoa, umeei garbitzeko ohitura irakastea da eta bide batez, eskolara garbi joatea. Udaleko Gizarte Zerbitzuak sei haur eskolaratu zituen eta badira hainbat hilabete San Andresko eskolara joaten direla. Hemendik

aurrera laguntzaileak egunero garbituko ditu haurrak San Andreseko eskolan bertan.

Orain dela gutxi arte, eurek eraikitako txaboletan bizi ziren bi familia portugaldarrak, Zaldispeko apar-

kalekuan. Udalak baimenik gabeko eraikuntzak zirela eta, bota egin zituen. Gaur egun furgonetetan bizi dira. Garbitasun baldintzak txarrak dira han. Hori dela eta, gutxienez umeen garbitasuna ziurtatu nahi du udalak.

Teknikari ikastaroa

Ikasketarik gabeko MCCko langileek, erdimailako teknikaria izateko aukera dute. Ikasketak egin ahal izateko, sarre-ra froga bat gainditu beharko dute lehenengo. Horregatik, otsailetik uztaile bitartean prestakuntza ikastaroa emango da. Izen ematea, Pertsonal Sailean egin daiteke, otsailaren 2a baino lehen.

Jaiotzak

- Leire Badiola Apraiz. Urtarrilaren 17an.
- Marina Lasa Madinabeitia. 21ean.
- Iñaki Muñoz Vazquez. 23an.
- Alazne Etxabe Urbina. 26an.

Hildakoak


- Purificacion Larrañaga Victoriano. 76 urte. Urtarrilaren 14an.
- Luisa del Pozo Rubio. 89 urte. 14an.
- Valeria Llanos Gonzalez. 87 urte. 20an.
- Antonio Pozo Barquero. 66 urte. 27an.

Milatik gora langile ari dira euskara ikasten Deba Garaian

Euskara sartzan ari da, poliki-poliki, Arrasate inguruko enpresetan. Lehenengo Antzuolako Elay enpresa hasi zen euskara lantegian sartzeko ahaleginetan. Gero Ikerlan etorri zen. Orain Ederlan, MCC Zentru Kooperatiboa, Fagor Sistemas, Fagor Elektrotresnak, Alecop eta Altuna ere horretan ari dira. Kontua da bailara honetan milatik gora langile ari direla ikasten euskara euren lanean nola erabili.

Aste honetan bertan, JMA, Alecop eta Fagor Sistemas enpresetan euskara sartzan joateko plangintzaren diseinua bukatuko da. Izan ere, orain arte enpresa hauek euskara zein egoeratan dagoen, zer egin litekeen eta zein langile eta sailen artean egin litekeen lana aztertu baita. Bestela esanda, diagnostikoa egin da. Orain urratsak egiteko ordua da.

JMA enpresan Elhuyar elkarte arduratu da lan hau egiten. Alecopen, Fagor Elek-



JMA enpresan ere, aste honetan bukatu da plangintzaren diseinua.

tratesnetan eta Fagor Sistemasi berriz, Arrasaten sortu berri den Emun enpresa ibili da. Enpresa berria izanda ere, badu eskarmenturik. Emun enpresa bera arduratzen baita MCC Zentru Kooperatiboren plangintzaz eta otsailaren hasieran Ederlangoari ekingo dio.

Gaur egun erabiltzen

diren metodoak lantegietako jendea euskalduntzeko zerikusirik gutxi dute orain urte batzuk antolatzen zirenekin. Gaur egun erabilera zirkuluak erabiltzen dira. Talde hauek erabakiak langileen esku daude. Beraz, ez da ezer egiten euren adostasunik barik. Zentzu praktikoa handiko metodologia erabiltzen da.

Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoentzako altzari sail berria topatuko duzu!

Zatoz estreinatu dugun erakusketa berria ezagutzera!

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

**Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis**

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

**HIES
EKIMENA**

**Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.**

Tel.: 79 26 99

1) Euskal dantzak

"Lore Gazteak" dantza taldeak emana

A) 10-14 urte bitartekoei zuzendua

- Otsailaren 18tik San Joanak arte
- Asteazkenetan, 18:30etatik 19:30etara
- Matrikula: 1.000 pta.

B) 15 urtetik gorakoei zuzendua

- Neska-mutilek lehentasuna izango dute
- Martxoaren 6tik San Joanak arte
- Ostiraletan, 19:00etatik 20:30etara
- Matrikula: 1.000 pta.



2) Gaur egungo dantza + Jazz dantza

Ana Mendiolak zuzendua (Patterson metodoa)


- Astearte (arrats. 19:00-21:00) eta larunbatetan (17:00-19:00)
- Otsailaren 24tik martxoaren 31ra
- Arrasate Musikalen
- Matrikula: 5.000 pta. (3.000 pta. ikasle eta langabetuentzat)

3) Karibeko dantzak

Sakontze mailako ikastaroa

Julio Lantiguak zuzendua

- Astelehen eta asteazkenetan, 19:30etatik 21:30etara
- Otsailaren 23tik martxoaren 25era
- Musakolako Saloian
- Matrikula: 4.000 pta. (2.500 pta. ikasle eta langabetuentzat)



Izen ematea: Gazte Bulegoan 77 00 65



TXINAKO ORDEZKARITZA BISITAN

Txinako sistema ekonomikoa berregituratzeko batzordeko ordezkariak eta lurralde ezberdinetako enpresario txinatarrak, Arrasateko esperientzia kooperatiboa ezagutzera etorri ziren joan den astean. Langileen eta bazkideen zuzeneko partaidetza oso baliagarria iruditu zitzairen eta Txinan ere kooperatibismoa erabiltzeko asmoz bueltatu ziren.



HOTZA ETA SAGARDOA



Bi autobuskada bete zituen Besaide Mendi Elkarteak joan den domekan. Asmoa: Ernioko tontorreraino igotea. Tamalez, elurra, izo-


tza eta izugarriko hotza egin zuen domekan eta ausart gutxi batzuek bakarrik lortu zuten gailurreraino heltzea. Eguneko hotza

ahazteko, Asteasuko Sarasola sagardotegian egin zuten geldiunea. Eguneko unerik beroena, zalantza barik!

AFRIKAKO ANIMALIAK ETXEAN




Juan Arregi aretxabaletarrak bi zaletasun ditu: Alaves futbol taldea eta safariak. Lehenengorari buruz luze idatzi da erreportajea. Safariari dagokienez, adibide txikia argazkian duzue: tigreak, geopardoak, oreinak, mota guztietako hegaztiak... Kenia eta Mozambike inguruan harrapatu dituen animalia guztiak Gamarrako lantegian gordetzen ditu disekatuta. Guztira zenbat hil dituen jakitea ezinezkoa da, baina berak esan digunez, 102 elefante hil ditu.



JAIME MAYOR OREJA ETA ISABEL BASTIDA

Batek baino gehiagok galdetu duzue zer egiten duen Jaime Mayor Orejak ARRASATE PRESSen. Kontua da bere ondoan agertzen den emakumea, emaztea, arrasatearra dela: Isabel Bastida. Ikasketak amaitu eta gero herritik joan eta urte hauetan apenas ikusi dugu paraje hauetan. Argazki hau azken *Hola!* aldizkarian agertu da.



IZENAK

Aintzane Gardoki

da Txatxilipurdi elkarteak Gatzagako ludotekan lan egiteko hartu duen teknikaria. Aintzane ETBko *Hitzaro* eta *Lengua Viva* saioretako aurkezlea izan da. ATBn ere aurkeztu zuen saio bat.



Nerea Maiztegi

izango da, otsailetik aurrera, Arrasateko Udal Euskaltegiko zuzendari berria. Elgoibarren jaio zen orain 32 urte. Arrasateko Udal Euskaltegian zortzi urte daramatza. Aurretik Elgoibar, Eibar eta Erandioko udal euskaltegietan ibili zen irakasle.



ALBOKALARIAK

Hogei bat lagun elkartzen dira larunbatero albokaren sekretuak ikasteko Musakolako saloian. Kanaberazko bi hodiz eta bi behi-adarrez osatutako haize-tresnei etengabeko soinua ateratzen diete albokalariak. Aintzinako istorioak gogora ekartzeko musika proposa...

tutako haize-tresnei etengabeko soinua ateratzen diete albokalariak. Aintzinako istorioak gogora ekartzeko musika proposa...

Rent a Car

Alkilerreko autoak.
Eta orain

TRAFIC eta EXPRES

MECA

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

Arrasatearrak

Futbolean denetik gerta daitekeela esaten dutenek ez dute arrazoirik falta. Gasteizko Alaves taldeak lehen mailako Real Madrid boteretsuari hortzak erakutsi, eta Kopatik kanpo utzi du. Orain, final zortzi-erenetan Coruñaiko Deportivo izango du aurka.

Bigarren mailako talde honek egindakoa ez da makala izan. Gure bailaran Alavesen lorpena era berezian segitu da eta bi arrazoi nagusi aurki daitezke: batetik, Gasteizekin dugun hurbiltasuna eta bestetik, hango taldean arrasatear dexentek jokatu dutela. Gaur egun jokalaria gazteen ametsa Realean edo Athletic-en jokatzea den moduan, lehen Alaves izan zen futboleko gora egiteko giltza preziatuena.

Azken berrogeita hamabost urteetan Gasteizko taldetik gutxienez hemeretzi arrasatear pasatu dira.

Alaves taldean jokatutako hainbat jokalaria arrasatearrek izan gara eta denak bat etorri dira Alavesek lortutakoa txapela kentzeko modukoa izan dela esaterakoan.

Asteazkenean Bernabeu futbol zelaian jokatu zen partida Jesus Aranbarrak gertu-gertutik jarraitu zuen. Jesus Alaves taldeko bigarren entrenatzaile izan zen eta lotura zuzena izan du gaur boladan dagoen taldearekin. Jose Mari Otaolduik, Txosak, ere irratian entzun zuen partidaren zati handi bat, baina urduri jarri eta irratia itzali behar izan zuen. Norgehiagokaren hasieran inork gutxik espero zuen Real Madrid handia kanporatua izatea. Paco Bediak, berriz, beharbada berak

Numancian esperientzia antzerakoa bizi zuelako edo, Alavesen alde egin zuen apostu hasieratik.

ZENBAT ALDATU DIREN GAUZAK

Erreportaje honetan protagonista bihurtu ditugun jokalaria ohiek Alaves taldeko sasoi desberdinak ezagutu dituzte. Adin desberdineko jokalariek elkar-tu eta makina bat istorio gogoratzeko aukera izan dugu.

Gaur egun entrenatzen auzo joatea ohikoa bihurtu bada ere; *Divino*, *Ante*, *Erregetxo*, *Txaparro* eta *Arriaran* jokalariek garaian Arrasateetik tren edo autobusez abiatzen ziren. Tren edo autobus gelotik Mendizorrotzara oinez joan beharra zuten, jokalariek artean harreman estuagoa izaten zela gogoratzen dute. "Sasoi hartakoa bestelako giroa zen. Jokalariek beti batera izaten ginen eta jarraitzaileekin ere beste harreman bat zegoen".

Leintz Baileratik jende dexente joaten zen Alaves taldearen partidak ikustera. "Gasteizen Arrasate eta inguruko ikasle asko zegoen eta hauek

ere ez zuten kalerik egiten".

Baina futbola erabat aldatu da azken urteotan. *Divinok* ez du ahaztu erabiltzen zituzten boten pisua "Botek izugarriko pisua zeukaten eta behin lokaztuta, ez zegoen hanka mugitzerik".

Erregetxo eta *Ante* aurrelariak izanda, baloien inguruan hitz egin digute. "baloia soka antzeko batek babesten zuen eta buruz jo behar zenean, zartada galantak hartzen genituen. Mareatuta gelditu denik ere ezagutu dugu. Bestalde, baloiak laruzkoak ziren eta buztiz gero, pisu handia hartzen zuten. Gogoratzen dugu behin gure kontra jokatzen talde sendo bat etorri behar zela eta baloia gau osoa uretan utzi genuela".

Beste aldaketa bat jokalariek prestakuntzari dagokio. "Masajista, mediku ofiziala, laguntzaileak, gimnasioa... denetik daukate. Gure sasoiak gimnasioa lantegia zen". Aldaketak gertatu bai, baina aldaketan aurrean era guztietako iritziak daude. Juanito Arriaranentzat, esate baterako, lehen futbola biziagoa eta alaiagoa zen.



aves taldean



1. Juan Jose Uribarren buruz gola sartzen.
2. Erregetxo, Txaparro eta Kabido, besteak beste, jokatzen zuten taldean.
3. Argazki berriena. Talde horretan bi arrasatear daude: Txosa eta Ugarte.
4. Ante, Divino, Arriaran, Erregetxo, Txosa eta Txaparro.
5. Jesus Aranbarriren sasoiko taldea.

Arrasateko jokalaria gehie- nek urte onak igaro dituzte Alaves taldean. Luis Lopez *Bomba* eta Aranburuk, berriz, euren bizitzako zauririk handiena, nahiz eta larria ez izan, hantxe izan zuten. *Bombak* lau hilabete iraun zion zauria izan zuen eta Aranbururi astroskopia egin behar izan zioten.

Divinorentzat eta Aranbarrirentzat ostera, urte benetan onak izan ziren, biek taldeko *pitxitxi* bukatu zuten eta. *Txos* ere goleatzaileen zerrendan jarri beharko genuke: "gol asko sartu nuen. Bigarren mailara igoteko azken partida Elgoibarren kontra jokatu genuen. Alavesek 0 eta 2 irabazi zuen eta gol biak neuk sartu nituen".

GERTAKIZUNAK

Herriko jokalaria hauek anekdota asko ezagutu dituzte futboleant ibili diren bitartean. *Txaparrok* eta *Erregetxok* taxiarena azaldu digute. "Normalean domeketan autobusean joaten ginen Mendizorroztara, baina behin Elgoibarko beste jokalaria batzuekin taxi hartu genuen. Taxian sartu eta Gatzagan izorratu egin zitzaizgun. Gasteizera heldu orduko, partida hasita zegoen eta zelaian zortzi jokalaria bakarrik. Bigarren zatian zelairatu ginenean izugarritzko txistu zaparrada jaso genuen. Harrezkero, beti besperan joateko agindu zigun entrenatzaileak".

Anteri ere ederra gertatu zitzaion. "*El Pajaro Azul* deitzen genuen autobusean ibiltzen ginen. Bartzelonara joateko, berriz, lekuri ez eta joan-etorria botikinaren gainean egin behar izan nuen. Niri *Zapatos* deitzen zidaten 44 zenbakia nuelako. Bestalde, Jose Mari Ogeta pilotaria gurekin entrenatzen zuela gogoratzen dut. Gimnasia egiteko etortzen zen Mendizorroztara eta arratsaldetan pilota partidak jokatzerako joaten nintzen harekin". Juanito Arriarane-

esan digunez, bere garaian jokalarien artean bazegoen desberdintasunik: "Ibarra, Gorospe eta Primi taldeko jokalaria dotoreak ziren eta hauek Dato kalean paseatzen zuten. Gu, berriz, alde zaharrera joan eta txikiteoan ibiltzen ginen". Kanpoko partidak jokatzerakoan hotelean lo egin behar bazuten, Juanitorekin batera logelan Elias Kerejeta zine ekoizlea egoten zen. "Elias Kerejeta jokalaria ona zen, baina despistatu samarra. Sekula ez zuen jakiten zeinen kontra jokatu behar genuen. Gainera, betidanik idaztea eta irakurtzea gustatu zaionez, ohitura zuen goizal-

dean esnatu eta gauzak irakurtzeko. Esaten zidan: "Juanito gustatu zaizu idatzitakoa? Nik, jakina, kasurik ere ez nion egiten".

Luis Mari Lopez Rekartek esandakoa ere merezi du aipatzea. Bigarren Bra igoteko promozioa Sabadell taldearen kontra jokatu zuten. Lehen zatian Alaves 0 eta 2 zen nagusi. "Atsedendian, normala zen bezala, kafea hartu genuen aldagetan eta ez dakit zer jarri zioten, baina bigarren zatian guttiz tontatuta ibili ginen eta galdu egin genuen. Kafea Alavesekoek prestatu zuten, ezin izan ginen kexatu".

Paco Bediak *Txos*arekin eta

Josu Ugarterekin batera jokatu zuen Alavesen. Pacoren berbetan, karta jokoan onenak, zalantza barik, arrasatearrak ziren. "makina bat partida jokatutakoak gara eta, egia esateko, ez genuen etsairik".

Zenbat kontu eta zenbat oroitzen. Izan ere, futbolk balaio baino gauza dexente gehiago ditu.

Gaur egun Arrasatek ez du Alaves taldean ordezkariarik, baina batek daki, beharbada urte gutxi barru, eta ahal bada lehen mailan, Gasteizko taldeak arrasatearren beharra izan lezake berriro ere.

Itxaro Zubillaga

Juan Arregi, Alaves taldeko lehendakaria

"Arrasateetik Alaves taldera jende jatorra etorri izan da"

Juan Arregi Aretxabalako Markole base- rrian jaio zen duela 90 urte. Gasteizko taldeko presidenteak futbolarekin lotura zuzena izan duen urteetan, era guztietako esperientziak bizi izan ditu. "Onak txarrak baino gehiago izan dira eta hori presidente batentzat gauza handia da", dio Juanek.

Bere bihotzeko taldeak joan den asteazkenean Real Madrid lehen mailako talde boteretsua Kopatik kanpo utzi zuen. "Real Madrid Kopatik kanpo uztea gauza berezia izan zen niretzat. Bernabeu futbol zelaira itxaropen handi barik joan nintzen eta han gertatutakoa ikusterakoan izugarritzko poza hartu nuen". Lorpen horri esker, komunikabide-



ek ez dute 90 urteko presidente bakan utzi. "nire lagun eta familiakoei esaten diet: 90 urte gainean eta inoiz baino famatuago".

Umorea galtzen ez duen gizon honekin gaurko kontuak eta antzinakoak mahai gainean jartzeko aukera izan genuen. Juan Arregi Alavesen jokatu izan duten Arrasateko jokalaria gehienak eza- gutzen ditu. Nagusiak bere sasoiak zirelako eta gazteak taldeko lehendakari zelako. "Arrasatear asko ibili da Alaves taldean. Nik ezagutu ditudan guztiak jatorrak izan dira. Leintz Baileratik jokalaria on eta langileak etorri dira eta une honetan inguru horretako ez baditugu ere, aurrekoek egindako lana eskertu behar da".

Erdi gasteiztar eta erdi atxabaltar sentitzen den lehendakariak ez du jubilatzeke ez asmorik, ezta gogorik ere. "Nire ametsa gauzatzen bada, ehun urtera arte Alaves taldea gidatzen segitza gustatuko litzaidake", aitortu zigun. Alaves zaleek, beraz, luzarorako izango dute lehendakaria.

Arrasatearrak Alavesen

HILDAKO JOKALARIAK:

JOSE MARI BIDABURU, ANGEL ARREGI eta PEDRO JOSE ARANBURUZABALA



IMANOL ZEZIAGA, *Divino*

Denboraldia: 43-44 eta 45-46
Postua: aurrelaria
Maila: 3. maila
Entrenatzaileak: Rey, Antero, Txolin



JESUS MARI ARANGUREN

Denboraldia: 63-64
Postua: Erdilaria • *Maila:* Regionalean jokatu eta 2. mailakoekin entrenatu.
Entrenatzaileak: Urkizu eta Garcia Andoain



EUGENIO BALZATEGI, *Erregetxo*

Denboraldia: 46-47 eta 47-48
Postua: aurrelaria • *Maila:* 3. maila
Entrenatzaileak: Begiristain, Oveja eta Gabilondo



JESUS ARANBARRI

Denboraldia: 72-73tik 79-80ra
Postua: Aurrelaria • *Maila:* 2. maila
Entrenatzaileak: Koldo Agirre, Joseito eta Galarraga



JUAN JOSE URIBARREN, *Ante*

Denboraldia: 50-51
Postua: aurrelaria
Maila: 2. maila
Entrenatzaileak: Ausina



LUIS MARI LOPEZ REKARTE, *Bomba*

Denboraldia: 79-80tik 86-87ra
Postua: defentsa • *Maila:* 2.a A eta B
Entrenatzaileak: Aranguren, Astorga, Garcia Andoain, Neme, Nahia eta Mane



JOSE ASPE, *Kabido*

Denboraldia: 47-48, 48-49 eta 49-50, 50-51
Postua: aurrelaria
Maila: 3. eta 2. maila
Entrenatzaileak: Oveja, Desiderio eta Ausina



JOSE MARI OTADUI, *Txosa*

Denboraldia: 90-91, 91-92
Postua: aurrelaria
Maila: 2.a B
Entrenatzaileak: Astorga



TXOMIN BEREZIBAR, *Txaparro*

Denboraldia: 47-48, 48-49 eta 49-50, 50-51
Postua: atzelaria
Maila: 3. eta 2. maila
Entrenatzaileak: Oveja, Desiderio eta Ausina



PACO BEDIA

Denboraldia: 87-88 eta 91-92
Postua: Erdilaria
Maila: 3. maila eta 2.a B
Entrenatzaileak: Espizua eta Astorga



JESUS ERRASTI, *Lauton*

Denboraldia: 50-51 eta 51-52
Postua: Aurrelaria
Maila: 3. eta 2. maila
Entrenatzaileak: Ausina



JOSU UGARTE

Denboraldia: 88-89tik 94-95ra
Postua: Erdilaria • *Maila:* 3. eta 2. B maila.
Entrenatzaileak: Begoña, Astorga, Balbas eta Luis Costa



JUANITO ARRIARAN

Denboraldia: 57-58
Postua: aurrelaria
Maila: 2. maila
Entrenatzaileak: Iriondo eta Etxezarreta



JUAN LUIS ARANBURUZABALA

Denboraldia: 88-89
Postua: aurrelaria
Maila: 3. maila
Entrenatzaileak: Begoña



LUIS LOPEZ, *Bomba*


Denboraldia: 62-63
Postua: aurrelaria • *Maila:* 2. maila
Entrenatzaileak: Martinez Arroyo, Urkizu eta Manolin.



GORKA OTXOA

Denboraldia: 89-90 eta 90-91
Postua: aurrelaria
Maila: afizionatuetan jokatu, Alavesekin entrenatu.
Entrenatzaileak: Astorga

ESKUBALOIA Etorkizuna jokalarien esku

 Arrasate Eskubaloi Taldeari beltz jarri zaio denboraldia. Azken partidanderrigorrez irabazi behar zuen Gasteizko El Pilar taldearen kontra, baina Herreroren mutilek galdu egin zuten. Arrasatearrek sailkapeneko azken tokian segitzen dute, lau punturekin. Oraindik hamar partida falta dira liga bukatzeko eta mailaz jaitsi nahi ez badute, irabazi egin beharko dituzte ia denak. Egoerari buelta eman eta apurka-apurka gorantz egiteko beste aukera bat izango dute zapatuan. Ereintza eta Arrasate izango dira aurrez aurre, arratsaldeko 19:30etan, Errenterian. Jesus Mari Herrero entrenatzailea kezkatuta dago taldea erakusten ari den itxurarekin. Berak dioen bezala, aldaketa eta sistema guztiak probatu ditu. Erantzuna, berriz, ez da ona izan.

FUTBOLA Emakumeak Bilbora

 Mondraren Emakume Taldeak jakin badaki zelan jokatu behar den, baina teoria praktikan jartzeko orduan arazoak izaten dituzte. Azken boladan garaipen gutxi lortu dute, eta ondorioz, sailkapeneko erdialdera jaitsi dira. Taldea ez dago ez, egon beharko litzatekeen tokian, batez ere, talde horretan dagoen maila ikusita. Igan-dean, Mondrak Bilbo izango du aurka. Bizkaitarrek ez dute talde sendoa osatzen eta ateari begira ez dira trebe ibiltzen. Ea bada hori jakinda aurkaria baino gol gehiago sartzeko gauza diren.

FUTBOLA Preferentekoak berriro kanpoan

 Preferente mailako Mondra 21 partidada jokatu direnean sailkapeneko bosgarren tokian dago, 37 punturekin. Denboraldi itxurosoa egiten ari dira arrasatearrak. Domekan ere usteak betetzen badira, ez lukete arazo handirik izan behar Erreteriko Bete Ona taldea gainditzeko. Neurketa larunbatean, arratsaldeko 17:15ean, jokatuko da Beraungo futbol zelaian.

SASKIBALOIA Gero eta joko hobea


 Aspaldiko partez talde-joko ona erakutsi zuen Arrasate Saskibaloi Taldeak azken partiduan. Hobekuntzak, dena dela, ez zuen garaipenik ekarri. Datorren zapatuan, hilak 31, Lizarra taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak, arratsaldeko 18:00etan, Nafarroan. Sailkapeneko zuloan dauden bi talde izan dira lehian. Horregatik, emaitza sekula baino garrantzitsuagoa izango da.

ERRUGBIA Garagartzan

 Arrasate Kirolak Errugbi Taldea eta Zarautz elkarren kontra arituko dira zapatuan arratsaldeko 16:00etan Garagartzan. Zarautzek esperientzia handiko jokalariek dituen arren, Patxi Goro-sabelek zuzentzen duen taldearentzat aukerako aurkaria izan daiteke. Norgehiagoka horri aurre egiteko, jokalaria guztiak gertu izango dira.



Erik Martin.



Isidor Ugarte.

Erik eta Isidor laugarren postuan

Joan den asteburuan Espainiako Karate Txapelketa jokatu zen Madrilin. Arrasateetik Isidor Ugarte eta Erik Martin joan ziren. Isidor Ugartek laugarren postua lortu zuen Euskadiko taldearekin. Lau borrokalditik hiru irabazi zituen eta bakararra galdu. Azken hau Europako txapel-dunaren kontra. Igan-dean, Isidorrek banan-banako txapelketan parte hartu behar zuen.

Tamalez, larunbat gauean gaisotu eta txapelketan izan bazen ere, ezin izan zuen bere maila erakutsi.

Erik Martin laugarren gelditu zen banan-banako txapelketan. Erikek lan polita bete zuen. Lau borrokalditik bi irabazi zituen eta beste bi galdu.

Taldea Erikek ere laugarren tokia lortu zuen Euskadiko taldearekin.

Atletismoa Iturripen

Larunabaterako, Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak bederatzi eta hamar urte bitarteko neska-mutilentzat atletismo lehiaketak antolatu ditu Iturripen. Goizeko 10:30etan hasiko den txapelketan Arrasateko ikastetxeetako gaztetxoek hartuko dute parte. Anoetan, berriz, pista estaliko Gipuzkoako Txapelketa jokatuko da. Han izateko; gutxieneko denborak behar dira. Arrasateko taldetik honako korrikalariak joango dira: Unai

Sarabia, JC Martin, Manu Anguas, Martin Davila, Oliver Fernandez, Felix Sanchez, Jonathan Perez eta Loentxo Davila. Txapelketa arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Igan-dean ere, Arrasateko atletek ez dute atsedunik izango. Oñatin Eskola Arteko Kros Txapelketa jokatuko da, goizeko 11:35ean. Arrasateetik lau ordezkari joango dira. Alazne Ruiz de Munain, Fernango Nogales, Iñaki Juez eta Mikel Maiztegi.

Wallace & Gromit

mozketa sakona

aardman bilduma

WALLACE & GROMIT

MOZKETA SAKONA

Noiz: **Urtarrilak 31**

Otsailak 1

Non: **Alai Zinema**

Ordua: **16:45etan**

BILDUMA LABURMETRAI HAUEK OSATZEN DUTE: MOZKETA SAKONA (Zuzendaria: Nick Park; iraupena 31'; 1.995) 1.996ean OSKAR SARIA laburmetrai onenari
• TITULUAREN SUKUJENTZIA (Zuzendaria: Peter Lord; 11"; 1996) • WATen TXERRIA (Zuzendaria: Peter Lord, 11"; 1.996) • TXORI GOIZTIARRA (Zuzendaria: Peter
Lor eta David Sproxion; 5"; 1.993) • EZ NIRE POLTSA GABE (Zuzendaria: Boris Kossmehl; 1.993) • My baby just cares for you (NINA SIMONEren bideoklipa)
Zuzendaria: Peter Lord; 3.30; 1.987) • GERRAKO ISTORIA (Zuzendaria: Peter Lord, 5; 1.89) • POP: Zuzendaria: Sam Fell; 3'1.996.





Orlando Piratas kanporatua

Orlando Piratas D multzoko liderra txapelketatik kanpo geratu da 14. jardunaldian. Arrazoia izan da bigarren

aldiz arbitrazera ez aurkeztu izana. Orlandoek ez dute erabakia begi onez hartu. Antolatzaileek, berriz, arauak

bete baino ez dutela egin diote. Kontuak kontu, txapelketak talde sendo eta indartsua galdu du.

Laburrak

■ GOL ZAPARRADA

Sailkapenari begiratzuz gero, Nacex.s taldeak jaso dituen golak aipatu behar. Hamalau jardunalditan 28 gol sartu ditu eta 164 gol jaso. Gehiegizko kopurua beste taldeek jasotakoa kontuan hartuta. Zalantza barik, Nacex.s-ek marka guztiak hautsi ditu!

TALDE BATZUK LASAI ETA BESTE BATZUK ESTU

Lehen fasea bukatzeko hiru jardunaldi bakarrik falta direnean, talde batzuek lortu dute bigarren faserako txartela. Hauek lasai egon daitezke. Beste batzuentzat azken txanpako partiduak izango dira erabakiorrak. A multzoan

dagoeneko hamar talde daude sailkatuta: Argi Ibili, Branka taberna, Nuevo taberna, AC Surcos, Sokoakoak, KKjauri, Garaje Oscar, Tamagotxi, Leya eta Ke Oxtias. B multzoan sailkatutakoak: DA Iriztu, Jey Holigans, Fraguél Gol, Betraye, Jako al rey, Pepelus, Lauterbrunnen eta Irati STS.

Azkenik D multzoan; Naranja Mekanika, Estrella taberna, Koka Juniors, AT Celaya eta Aldibi.

Berriro gogoratuko dugu, multzo bakoitzetik lehenengo hamar taldeak sailkatzen direla. Hamaikagarren egiten duten hiru taldeen arteko bi onenak ere sailkatuko dira.



LASAGABASTER

USTE OSOKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	14	12	1	1	84	36	25
Branka Taberna	14	10	1	3	60	37	21
Nuevo taberna	14	10	1	3	73	46	21
AC Surcos	14	10	1	3	70	39	21
Sokoakoak	14	9	2	3	84	38	20
KKjauri	14	8	1	5	44	33	17
Garaje Oscar	14	8	1	5	60	41	17
Tamagotxi	14	8	1	5	38	39	17
Leya	14	7	3	4	80	54	17
Ke Oxtias	14	6	4	4	56	37	16
Jotakabau	14	6	2	6	33	38	14
Pipwhis	14	6	1	7	46	42	13
Cartonajes Igamo	14	3	2	9	33	50	8
Ganbelas	14	2	4	8	37	45	8
Potrosorri	14	2	3	9	38	61	7
Babjana Sexy	14	2	3	9	37	70	7
Onaniereng	14	2	1	11	43	81	5
Nacex.s	14	0	0	14	28	164	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	14	11	2	1	69	25	24
DA Iritzut	14	9	4	1	63	48	22
Jey Holigans	14	10	0	4	69	44	20
Fraguel Gol	14	8	4	2	54	41	20
Betrayer	14	8	3	3	59	37	19
Jako al Rey	14	8	2	4	63	44	18
Pepelus	14	9	0	5	64	50	18
Lautherbrun	14	8	2	4	57	49	18
Irati STS	14	8	1	5	59	47	17
ZOtZ	14	7	1	6	48	44	15
DKB	14	5	1	8	53	55	11
Komando alparg.	14	4	2	8	45	65	10
Bukanak	14	4	2	8	60	79	10
Rotor de bolbogr.	14	4	2	8	49	50	10
Arrogoi taberna	14	3	0	11	32	53	6
Ainarexia	14	2	1	11	47	87	5
Sobred. de Claro	14	2	1	11	44	87	5
Epeh	14	2	0	12	23	40	4

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekan.	14	12	1	1	72	34	25
Estrella taberna	14	12	0	2	95	49	24
Koka Juniors	14	11	2	1	90	39	24
AT Celaya	14	9	2	3	67	41	20
Aldibi	14	8	3	3	86	47	19
Lorategi	14	9	0	5	95	40	18
Aurrera Bolie	14	7	2	5	63	54	16
Los Heredia	14	6	3	5	54	35	15
Totem	14	6	2	6	61	30	14
Txeyenex	14	6	2	6	69	57	14
Insert Coin	14	6	1	7	54	55	13
Borroch Roll	14	5	3	6	47	50	13
Aldapa taberna	14	5	1	8	65	77	11
Kamasutra	14	2	5	7	39	58	9
Etxe Mobil	14	3	1	10	41	103	7
Makai	14	2	0	12	38	128	4
Elisabeth	14	1	1	12	29	98	3
Iluna Taberna	14	1	1	12	30	90	3



SERMOIA EGITEN EDO AZALPENAK ESKATZEN

Batek daki Ainarexia taldeko jokalaria zertan dabilen. Besoak behintzat ondo luzatuta ditu eta sermoilari itxura ere ikusten zaio.

Jendeak kasu egiteko horrela ibili behar da Zaldibarren?

Emaitzak

A taldea

Ke oxtias 2 - Tamagotxi 2
Jotakabau 2 - AVC surcos 8
Babajana sexy 4 - Onaniereng 2
Argi Ibili 2 - Sokoakoak 1
Cart Igamo 8 - Nacex.S 2
Pipwhis 0 - Nuevo taberna 1
Ganbelas 3 - Leya 4
Garaje oscar 5 - Branka Tab. 4
KKjauri 4 - Potrosorri 2

B taldea

Pepelus 1 - Arrogoi taberna 0
Jey Holigans 1 - Orlando Piratas 0
Irati STS 1 - Epeh 0
Betrayer 6 - Komando Alpargat 2
Lautherbr. 5 - Sobred. de Claro 4
Jako al rey 10 - Ainarexia 1
Rotor de Bolb. 2 - FRaguel Gol 2
Bukanak 6 - DA Iritzut 8
ZotZ 7 - DBK 5

D taldea

Estrella taberna 10 - Aldibi 8
Aurrera Bolie 5 - Lorategi 4
Etxe Mobil 3 - Borroch Roll 10
Naranja Mek. 4 - Aldapa tab. 4
Txeyenex 12 - Elisabeth 1
Totem 3 - Koka Juniors 6
Makai 0 - Los Heredia 14
Kamasutra 0 - Insert Coin 5
Iluna taberna 3 - At Celaya 8



Hurrengo partiduak

15. ihardunaldia

urtarrilak 31, Larunbata

Zaldibar

08:50 Aurrera Bolie - Elisabeth
10:00 Ke Oxtias - Potrosorri
11:00 Komando Alpargat - Jako al rey
12:00 Koka Juniors - Naranja Mekanika
13:00 Nuevo taberna - Argi Ibili
14:00 Lautherbrun - Irayi STS
15:00 Cartonajes Igamo - Babajana
16:00 Zotz - Fraguel Gol
17:00 AC Surcos - Garaje Oscar
18:00 Estrella taberna - AT Celaya
19:00 KKjauri - Leya

Ituripe A

12:00 Onaniereng - Tamagotxi
13:00 Txeyenex - Etxe Mobil
14:00 Ainarexia - Betrayer
15:00 Rotor de Bolbogrado - DA Iritzut
16:00 Ganbelas - Branka Taberna

Ituripe B

13:00 Lorategi - Kamasutra
14:00 Jey Holigans - Sobredosis de claro
15:00 Borroch Roll - Aldibi
16:00 Makai - Insert Coin

Otsailak 1, Igandea

Zaldibar

09:50 Jotakabau - Nacex.S
11:00 Iluna Taberna - Los Heredia
12:00 Aldapa Taberna - Totem
13:00 Pepelus - DKB

JULEN AREXOLALEIBA (EMUN ENPRESA)

“Euskara sartu nahi da”

Julen Arexolaleibak 35 urte baino ez ditu, baina ibilbide luzea du eus-kalgintzan. Beharbada horregatik hasi zaio urdintzen. Euskara saileko burua da Eskoriatzako Irakasle Eskolan. Mondragon Unibertsitatearen barruan Humanitate eta Hezkuntza Zientzian Fakultatean ari da. Baina guk orriotara beste zerbaiteratik ekarri dugu: Emun enpresa berriko lehendakaria delako, hain zuzen.

- Zer da Emun?

- Enpresa berri bat da, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren eta Mondragon Unibertsitatearen magalean sortu dena. Kooperatiba Elkarte gisa eratu da: Irakasle Eskolak partaidetzaren %60 du eta langileek %40. Emun enpresaren helburua hau da: enpresei eta unibertsitateei laguntza eskaintzea euskara lan hiz-

kuntza bihur dezaten.

- Badu zerikusirik ELIErekin?

- ELIE Elhuyarrekin batera sortu genuen bitariko kooperatiba izan zen. Helburu berberak zituen. Bederatzi hilabetean zehar egin zuen lan, baina urrian banatu egin ginen. Elhuyar bere bidetik joango da eta gu geuretik.

Horren ostean Emun sortu genuen.

- Zenbat lagun ari diralanean?

- Oraingoan lau: Juan Luis

Arexolaleiba, Amaia Balda, Dani Larrea eta Jon Sarasua. Guztiak ezagunak inguru honetan euskararen alde egin duten lanagatik. Hemengoak dira eta gertutik ezagutzen dute hemengo errealitatea. Datozen hiru urteetarako Arrasaten izango dugu egoitza, Nafarroa etorbidean, INEMen parean.

- Baduzue lanik eskuartean?

- Bai. Oraintxe bertan Fagor Sistemas, Fagor Elektresnak eta Alecop kooperatibetan euskara sartzeko bideragarritasun

“Gure metodologian erabakiak adostutakoak dira: langileek erabakitzen dute. Begiraleek lagundu egingo diete, baina azken hitza haiena da”

lgu lan esparruan”

plana eta diseinua egiten ari gara. MCC Zentru Korporati-boan eta Ederlanen, berriz, aurreratuago gabilitza, diseinu horiek gauzatzen hasita.

- Zenbateraino erabiltzen da euskara lan eremuan?

- Bereiztu beharra dago: ahoz askoz ere gehiago erabiltzen da; idatziz, ostera, askoz ere gutxiago, baina leku batetik bestera ere aldeak izaten dira. Gure inguruan aipatzekoa da egiten ari den lana. Ikerlanen eta MCC Zerbitzuetan, esate baterako, hasiak dira lanaren emaitzak agertzen. Unibertsitateari dagokionez, egoerarik onena Irakasle Eskolak du, baina Eskola Politeknikoan ere egin dira urratsak. Atzeratuena ETEO izango litzateke, baina datorren ikasurteretik aurrera, han ere euskara sartzen joango da modu nabarmenean.

- Hau ez da kooperatibak

euskalduntzeko egiten den lehen ahalegina.

- Ez. Franco hil eta gero egin ziren saio batzuk. Baina gaurko egoera oso bestelakoa da. Alde batetik, ikasketak euskaraz egin dituen jendea iristen ari da enpresetara. Bestetik, gure metodologia ere erabat desberdina da: orain kontua ez da eskolak hartzea, besterik gabe. Inori ez diogu eskatzen EGA titulua ateratzea. Gaur egun erabilera zirkuluak antolatzen ditugu, langileek euskara lan tresna gisa erabil dezaten. Zirkuluaren metodologian erabakiak adostutako-

ak dira: langileek erabakitzen dute. Gure begiraleek erabakiak hartzen lagunduko die, baina azken hitza haiena da.

- Gauzak lehen baino argiago daude, beraz?

- Oinarri sendoagoa dugu gaur, baina, hala ere, ez dugu lan erraza izango. Oztupoak etorriko dira. Poliki joan beharra dugu, belaunaldi berriak datozela aprobetxatuz eta azpimarratuz euskarak berebiziko garrantzia izan dezakeela gaur egun erruz aipatzen den erabateko kalitatean. Luzerako

lana izango da. Gogoan izan gaztelaniaz lan egiten ohi-ta dagoenari kosta egingo zaio-lana ohi-turak aldatzea.

- Bestelako zerbitzurik eskaintzeko asmorik baduzue?

- Bai. Gure asmoen artean aholkularitza juridikoa eskaintzea ere sartzen da. Bekadunak erabiliko ditugu enkarguzko azterketak egiteko. Bekadun horiek hiru edo sei hilabeterako bekak izango dituzte, eskatzen zaizkien ikerkuntza lanak egin ahal izateko, beti ere lan hizkuntza euskara dela, jakina. Hori dela eta, webgune bat sortu dugu Interneten, aholkularitza juridikoa bideratu ahal izateko. Horretan IVAPen laguntza izan dugu. Webgune horretan (www.emun.com) gure bezeroak bakarrik sartu ahal dira.

Kontu ikuskaritza ere eskaini nahiko genuke. ■

“Enpresen gaur egungo egoera ez da lehengoa. Belaunaldi berriak iristen ari dira, ikasketak euskaraz egin dituen jendez osatua”



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea, 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

■ Arrate Villamor

TXURRO SALTZAILEA



Teorian Logroñon bizi da, baina lanak herriz herri darama eten-gabe. Gurasoengandik jaso zuen lanbidea, txikitari. Orain 33 urte ditu eta bi txurreria gobermatzen ditu, berea eta gurasoena. *La Exquisita* txurreriak 27 herri bisitatu ohi ditu urtero, baina Arrasaten igaroten du boladarrak luzeana, lau hilabete.

Hotzak uxatzeko txurro gozoak nahi izanez gero, azkar ibili, igandean badoaz eta hemendik!

1.- Zein da zure horoskopoa?
Aries.

2.- Sinestuna zara? Bai.

3.- Animalia bihurtzekotan? Zisnea.

4.- Zure akats bat/gauza on bat? Besteek esan dezatela hori.

5.- Zerk lotsarazten zaitu? Ezerk ere ez.

6.- Amets bat? Errealista naiz. Ez daukat ametsik.

7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Miseria.

8.- Gertakizun historiko bat? Demokrazia.

9.- Nor miresten duzu? Emakume langilea.

10.- Zeri diozu beldurra? Gaisotasunari.

11.- Zeozer garbatzen zaizu? Ezer ere ez.

12.- Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen, ez naiz negartia.

13.- Zer falta zaio Arrasateri? Gujoandakoan, txurreria.

14.- Etazuri? Egunez egun seme-alabekin bizitzea.

15.- Lanbidez aldatzekotan? Gusturara nago nire lanean.

16.- Arrasateko gustuko toki bat? Santa Barbara.

17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Kirola.

18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Correo*.

19.- Gogoko janari bat? Gozoak.

20.- Liburu on bat? *Como agua para chocolate*.

21.- Filmik onena/txarrena? *Lo que el viento se llevó/ Abierto hasta el amanecer*.

22.- Musika talderik onena/txarrena? Musika erromantikoa dut gogoko.

23.- Telebistako saiorik onena/txarrena? Film onak/*Reality-show*-ak.

24.- Egin dizuten oparirik politena? Denak.

25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? *Petit point* egiten dut.

26.- Oporretarako toki bat? Hondartza.

27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Platerak garbitzea.

28.- Gomendio bat? Eskatu ezean, ez dut aholkurik ematen.

29.- Zeren alde emango zenuke bizia? Familiaren alde.

30.- 200 milioi pta. irabaziz gero? Ez dut uste txurreriako lanari utziko nio-nik.



BAZTER-ALDE

J A T E T X E A

Denboraldiko platerak, giro onean


Galartza auzoa • AREIXABALETA

Tel.: (943) 79 24 58

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 79 48 77 • ARRASATE



Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Artetxarra Arrasaten

Askotan Arrasatetik Udalarako bidean (menditik zehar joanda) pasatu baldin bagara ere, inoiz ez gara konturatu hantxe dagoen altxor botanikoa. Izan ere, jakinaren gainean baldin bageunden ere Udalatxeko Hegoaldeko aurpegiak mikroklima mediterraneoagoa osatzen zuela, gure poza ez zen txikia izan *Quercus coccifera* (zumela edo abaritz) landara Saiturri deritzon inguruan ikustean.


Zuhaiska honen itxurak hasiera batean artearenaz nahastera eraman gaitzake, baina baditu zenbait bereizgarri.

Honen tamaina inoiz ez da arteak lortzen duenera heltzen, normalean ez baita bi metroa iristen. Hostoa ere txikiagoa du eta bi aldeetik berde argikoa eta ilegabea da. Artearena berriz, azpialdetik zuriska eta ile-duna da. Azkenik, ezkuraren txapelak edo karloak arantzen antzeko ezkatat ditu, artearen karloa lau den bitartean.

Kontu honen garrantzia zuhaiska honen kokapenean dago, berez penintsulako Ekialdeko lurralde lehorretakoa baita.

Euskal Herrian Araban eta Nafarroaren Hegoaldeko ertzean ikusten da. Orain arte, bestalde, klima atlantikoaren duten lurraldeetatik Bizkaian (Iparmendebaldeko kostaldean) soilik ezagutzen zen. Beraz, Arrasatekoarekin batera, bi kokapen bakarrak izango lirarteke.

Hau guztia gutxi balitz, badaude beste bi arrazoi honen garrantzia areagotzen dutenak. Batetik, hauetako



landare bat lau metro luze izatea; hori dela eta, zuhaitz berezitat izendatuko nuke (bere babeserako balio dezan). Bestetik, zuhaiska honentzat Arteta baserriko Jose Ramon Ercillarengandik jasotako izena: *artetxarra*, hain zuzen ere.

Aipatutako bi leku haue-tan badago zuhaiska arriskuan jartzen duen zerbait: hazkunde azkarreko zuhaitz

exotikoen oihaneztapena, hain zuzen. Eukaliptoia Bizkaiko kasuan eta *insignis* pinua, nola ez, Arrasatekoan, biek ere artetxarrari dago-kion habitata hondatzen baitute.

Felix Barcina, ikaslea
Juan Andres Oria de Rueda, Mendi ingeniaria eta irakaslea

Euskerien txokoa

Irten, urten/ atera aditzaren gainean

Hasteko, esalditxo batzuk egingo ditugu.

Goizean goiz **urten** dot (batzuk naz) etxetik (guk halaxe esaten dugu).

Goizean goiz **atera** naiz etxetik (guk ez, baina beste batzuk bai).

Automobila **atera** (atara) dot garajetik, eta arin-arin **urten** dot, lanera garaiz heltzeko (gure eskualdean).

Gure artean, **irten** (batuan) edo **urten** (mendebaleko euskalkian) erabiltzen dogu nunbaitetik beste leku batera goazela esateko. Eta noz erabili **atera** edo atara? Zeozer fisikoa-edo atera behar dogunean, automobiletik, etxetik..., erretratua atera dustie, txanoa atera dot, txakurra atara jonat pasietan...

Norbera edo pertsona denean kanporatzen dana... orduan **urten** edo **irten** (batuan). "Noz **urten** behar dozue etxetik?"

Edozelan be, "goizeko 10:00etan **atera** naiz **kalera**" esaten daue batzuk eta hori be ondo dago egon, baina gure euskeran ez daukagu zertan hori egin. Halakuetan, **urten** (gure euskeran) edo **irten** (batuan).

Kontuz! Ondo erabili hauek:
urten (urteten, urteteko...)
irten (irteten, irteteko...)


Karmelo Uribarren

Eguzki-indarrak eraginda dabilzan hogeitresna ikusgai Harresi aretoan

Gaur arratsaldean erakusketa bitxia inauguratuko da Harresi aretoan: *Eguzki Bidezko Asmakariak*. Otsailaren 8a bitartean, eguzkiaren indarrak eraginda dabilzan hogeitresna hauek ikusi eta ulertu ahal izango ditugu.

Tresna hauek Jose Manuel Jimenez "Súper"ek diseinatu eta egin ditu. "Súper" basurriarra da izatez, baina Nafarroako Azotz herrian bizi da, berak eraikitako etxean. Tafallako Urkia anaien eskutik murgildu zen energia iturri alternatiboen esparruan. Urteak dira energia iturri hauen inguruko hezkuntza materiala sortu eta ikastaroak ematek bizi dela. Erakusketan ikus daitezkeen tresna gehienak erabili egiten ditu berak; horiek eta beste asmakizun asko *Ingenios solares* liburuan argitaratu berri ditu, eguzki bidezko tresna errazak nork bereak egiten gidatzeko eskuliburua.

Egileak dioenez, tresna hauek oso errazak dira egiten. Funtzionamenduari dagokionez ere, sinpleak dira, merkeak eta seguruak. Ez dago bat ere arriskurik. Eguzkia, gainera, hor dago, edo nork nahi adina energia hartzeko moduan.



Eguzki-labea

Erakusketan ikus daitezkeen tresna guztiak gazteek eskoletan edo nork bere etxean lantzeko modukoak dira. Irudiko eguzki-labea 20 minutuan antola daiteke. Oinarrizko elementuak, kristala (3) eta beltzez margotutako eltzea (1) dira. Kristalak berotegi efektua eragiten du kutxa barruan, eta kontu ezaguna da kolore beltzak beroa xurgatzen duela. 100-130°Cko temperaturak erraz lortzen dira eguzki-labearen bitartez. Gasa erabilita baino motelagoa da, baina erregairik ez da behar. Gainera, jakiek hobeto gordetzen dituzte euren berezitasunak eta ez dira sekula eltzeari itsatsita geratzen.

Erakusketa osatzen duten 20 tresnen artean, bat ere mis-

teriorik ez duen eguzki-erloju ezaguna aurkituko dugu,

baina baita eguzki-auto foto-boltaiko berria ere. Txitxi-burduntzien eguzki-erregailua, eguzki-pasteurizagailua, fruituak lehortzeko sistema, eguzki bidezko ur beroko sistema, eguzki bidezko bateriakargatzailea... Kasu guztietan, tresna bera ikusiko dugu, eta ondoan, argibide panela, honako informazioarekin: funtzionamendu zehatza, eraikitzeko behar diren materialen zerrenda eta eraikitzeko krokisa.

Esan beharra dago, tresna guztiak zaborretik berreskuratutako materialekin egin direla. Sormena, beraz, alde batetik, eta bestetik, erantzukizun ekologiko bikoitza: hondakinen berrerabilera eta energia iturri garbi eta agortezinen aprobetxamendua.

Erakusketa hau Udalako Ingurugiro Eskolak antolatatu du, eskoletan aste hauetan lantzen ari den *Zaborren problematika* aztertzen kanpainen barruan. Udal Elkarteak eta Bergarako eta Oñatiko udalek ere parte hartu dute antolaketan. Izan ere, datozen asteetan herri horietan erakusketa bera antolatuko da. Deba Garaiko DBHko lehen zikloko 2.500 neska-mutilek bisitatuko dute. Jakina, erakusketa herritar guztiei dago zabalik.



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxeba Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

GAMMA

**ELEKTROLOGIA
ZENTROA
BEHIN-BETIKO
DEPILAZIOA**

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

AINHOA AGIRREAZALDEGI, BERTSOLARIA

“Bertso eskoletan nork bere kabuz egin behar du aurrera”

Ainhoa Agirreazaldegi bergararra hamar urte zituela hasi zen bertsoan. Orain 19 besterik ez ditu, eta badaramatza bost urte bertso eskolak pizten. Joan den astean hasi zituen Arrasate eta Artexabaletako ikastaroak. Oraingoz hamalau gazte animatu dira, “oso jende bizia”, berak dioenez, eta hori oso garrantzitsua omen da bertolaritzarako.


- Zer landuko duzu bertso eskolan?

- Helburua bat-batekotasuna lantzea da eta hasieratik bertatik hasiko gara horrekin, idatzizko materialik apenas erabili gabe, bestela naturaltasuna galdu egiten da eta. Gehiago da bertso lantegia bertso eskola baino. Irakasleonegitekoa, bertsoaren esparrua ezagutzen laguntzeko baliabideak eskaintzea eta lantegia girotzea da. Ezer gutxi erakutsi dezakegu guk; bakoitzak landu behar du bidea, lortu nahi duenaren arabera.

- Ekainean amaituko da ala izango du jarraipenik ?

- Ez da ekainean amaituko. Bertsoan ikasi eta jardun nahi duenarentzat hasiera besterik ez da hau. Adibidez, ekainean eskolarteko Bertso Txapelketa izan ohi da: eskoletan kanporaketak izango dira, gero eskualde mailan, herrialdean..., lehiaketa giroa alde batera, jai izugarria da gaztetxoentzat.

Bestalde, inguruko auzo eta herrietako jaietan hartu beharko lukete parte. Poztekoa izango litzateke Sanjoanetan, adibidez, herriko gazteak aritzea bertso saioetan, eta ez kanpotik ekarritakoak, azken urteetan gertatu izan den bezala. Herrian dagoen baliabide hau aprobetxatzen jakin beharko luke jendeak edozein ekitaldi edo jai antolatzerakoan.



- Zu zeu bertso eskoletako irakasle hasi zinen, artean bertso eskoletako partaide edo ikasle zinela.

- Bertso eskoletan, neurri batera ailegatuta, nork bere kabuz egin behar du aurrera. Erakutsi beharreko edukiak gutxi batzuk dira. Hori da bertso eskoletako dinamika, ikasitakoa gazteagoei erakustea.

- Nola ikusten duzu harrobia?

- Boom-aren garaiko giroa berriz lor daitekeela uste dut. Nire helburuetako bat, ikasleei ondo pasatzeko aukera eskaintzea da. Jendea bertsoan gustura ibiltzea eta ondo pasatzea da lortu behar den lehenbizikoa. Horrek eskaintzen du norbaitek bere bidean gorago egiteko oinarria.

- Lantegia kalera eramango duzu?

- Bai, eta taldeak animatuta daude. Kalera zenbat eta lehenago atera, hobe, aurrez ikasitako bertsoaren batekin izan behar badu ere. Lotsa kentzea da kontua. Dagoen gauzarik okerrenea da hamazazpi urterekin ateratzea.

aste gazte

■ BEKAK

• “Reina Sofia” musika eskolak, biolina, biola, biolontxelo, pianoa, kontrabaxua eta kantu ikasketak burutzeko dirulaguntzak eskaintzen ditu. Epea: otsailak 15.

■ LANA

• Arrasateko Udalak, zerbitzuetako ikuskatzaile bat eta bi administrari laguntzaile postu bete nahi ditu. Epea: otsailak 5.

• Osakidetzak, hainbat langune bete behar ditu:

Administrari eta erdi goi mailako tituladuna. Epea: otsailak 7.

Teknikari espezialista, fisioterapeuta eta emagina. Epea: otsailak 8

LHII informatikoa eta goi mailako informatikoa. Epea: otsailak 9.

■ LEHIAKETAK

• “Martxoak 8” hormirudi lehiaketa, Arrasateko Emakume Sailak antolatuta. Epea: otsailak 18.

• Gazte Kutxak, urteroko ikasketen-bidaien proiektu lehiaketa antolatu du. Gipuzkoako ikastetxeetan ari diren BBB, IEE UBI, LH-I, LH-II, LOGSE batxilergoa eta unibertsitate mailako ikasleek parte hartu ahal dute. Epea: martxoak 7.

• Lizarra Hiria Komiki Lehiaketa, “Desberdinak Gara, Berdinak Gara” lelopean. Euskaraz nahiz gaztelaniaz, teknika librean eta zuri-beltzean. Gehienez 4 orrialde. Epea: martxoak 24.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

“Herrian dagoen baliabide hau aprobetxatzen jakin beharko luke jendeak”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Juan Carlos Gerra kalean etxebizitza salgai. Tel.: 77 14 93.

• Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, 2 bainugela, egongela eta trastelekua. 104 m². Tel.: 79 27 45.

• Otorala Lizentziatua kalean 45 m²ko estudioa salgai. Kontsultarako aproposa. Tel.: 79 27 45.

2. Erosi

• San Andres auzoan etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alojeran jarriko nuke, ahal bada ikasleentzat. Aretxabaletan dago, futbol zelaiaren ondoan. Tel.: 79 63 49. Iñaki. Gaueko 9:00etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Bikote gazte batek etxebizitza behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

• Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 79 02 26. Arantza.

• 3-4 logela dituen pisua behar dut lehenbailehen. Tel.: 908 14 48 42. Jesus.

5. Etxe konpartituak

• Gela bat nahi dut Arrasateko etxe konpartitu batean. Tel.: (94) 438 69 17.

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten, jendearekin bada hobe. Tel.: 36 30 40 edo 21 57 07. Unai.

• Alokaturako etxe batean edo pentzio batean sartuko nintzateke. Deitu 79 09 00 telefonora. Olatz, Gizarte laguntzaileaz galdetu. Roberto.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauez.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskakerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskakerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Leintz Gatzagako Zuhaitz jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

• Loradenda eta dietetika denda alokagai Berrizen. Tel.: (94) 682 42 28.

• Bergarako Ubera auzoan lokala daukat alokatzeko. Tel.: 79 05 63. Utzi mezua.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrial hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek lokala errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

LANA

17. Eskaintzak

• 35 urteko emakumea gertu sukaldean laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxeetara arropak plantxatzerajaoteko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

• Umeak zaintzeko edo orduka garbiketarako egiteko gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkalordutan edo gauetan deitu.

• Emakume euskaldunak umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tel.: 79 07 73.

• Pertsona gaztea edozein lan egiteko gertu. Tel.: 79 48 97.

• Esperientziadun klinika laguntzai-

lea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 09.

• Asteburutan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

• Esperientziadun saltzailea lan egiteko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

18. Eskakerak

• Esperientziadun neska behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 06 82.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 79 35 73. Gauez deitu.

• Emakumea behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 13 91.

• 17-25 urte bitarteko kamareroa behar da. Tel.: 79 60 43. Isi.

• Baserri lanetarako pertsona bat behar da. Tel.: 33 05 95.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 35 73.

• Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

• San Viator Ikastolak kurtsu bukaera arte ingeniari euskalduna behar du Bigarren Hezkuntza irakasteko. Curriculumak San Viatorrera eraman edo 79 04 11 telefonora deitu.

• San Viator Ikastolak ingeles filologia behar du maiatzera arte ordezkapenak egiteko. Euskara menperatzea beharrezkoa da. Curriculumak San Viatorrera eraman edo 79 04 11 telefonora deitu.

• Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko neska bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainitze.

• Psikologoak OHoko eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

• Jantzigintza eskolak ematen dira. Tel.: 79 53 36. Izaskun.

21. Eskaerak

- Frantseseko eskola partikularrak hartuko nituzke goizetan. Dei egin eguerdiko ordu batean 75 17 50 telefonora.
- 2. BUPeko ikasle batek matematikako eskolak gaztelaniaz hartuko lituzke. Tel.: 79 55 96.
- 2. REMeko ikasgaiak lantzeko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 19 36. Aitor.

MOTORRA

23. Saldu

- Ford fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.
- Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai. Gris metalizatua. 5 martxaduna eta estriboetako babesgarririkin. Tel.: 79 09 92. Eguerdiko 13:00etatik 16:00etara.

DENETARIK

26. Saldu

- Bigarren eskuko erremolkea salgai. Tel.: 79 86 75. Denda orduetan.
- Meto markako barazki eta haragja pisatzeko tresna salgai. Tel.: 79 08 97.
- Egoera onean dagoen disc-man-a salgai. Tel.: 79 09 92. Bazkalorduetan edo gauez.
- Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkalorduetan edo gauez.

• Baserriko kiwi ederrak salgai. Auke-ra ederra! Tel.: 79 97 84.

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Egur kolorea duen sehaska berria merke saltzen da. Tel.: 79 56 53. Isabel.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur bero-gailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

30. Hartu

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailua behar ditu. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Monterron parkean betaurreko graduatuak galdu nituen. Aurkitu badituzu, Zeziaga dendan utzi. Eskerrik asko. Eskertuko da.

• Paper garrantzitsu batzuk zituen karpeta urdina galdu nuen iazko urriaren 28an San Andresen. Tel.: 970 41 74 08.

• Urtarrilaren 11n urrezko erlojua galdu nuen Oiarte eta Erdiko Kale bitartean. Balio sentimental du. Eskertuko da. Tel.: 79 89 32.

• Urtarrilaren 10ean Untzila eta Aretxabaleta bitartean irrati transmisio-rea galdu zitzaidan. Tel.: 79 41 57.

• Giltzak galdu ditut Urjibe auzoan. Tel.: 71 53 40.

32. Aurkitu

• Gurutze idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.

• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

• Muru bidean ezkontzako eratzuna aurkitu nuen. Tel.: 79 53 40. Gaueko 10:00etatik aurrera.

37. Bestelakoak

• Eskoriatzan ikasten dugun hiru neska gara eta egunero joan-etorriarako Zumarraga-Gasteiz norabidea kobzez egiten duen norbaitekin harremanetan jarri nahi genuke. Tel.: 72 24 57. Julene.

• Zure etorkizunaz -osasuna, lana eta maitasuna-jakin nahi baduzu, zure esanetara naukazu telefono honetan: 929 98 62 20



LORAMENDIN

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak
- Zapatilak eta abar

ZATOZ!

% 50

San Andresen eta Garibain

■ Horoskopoa

- **Aries** Sudurra luzatuko zaizu gezurti horri!
- **Taurus** Aro berriaren ateak muturretan emango dizu.
- **Gemini** Ez lotsatu eta jartzazu soinean lumazko jantzia.
- **Cancer** Ondorengo egunotan nebulosa batean murgilduko zara.
- **Leo** Yuppy nazkantea zara, buruan dirua besterik ez duzu.
- **Virgo** Lasai egon: txipiroien prezioa ez da igoko.
- **Libra** Masaje ikastaro batean hastea komeni zaizu.
- **Scorpio** Esnatu: Sharon Stone ez da zurekin oheratuko.
- **Sagitaris** Beñeak bekokiraino luzatuko zaizkizu.
- **Capricorn** Ez zaitetzutondoan jarri itzalgailu barik.
- **Aquarius** Itxi begiak eta entzun inguruan mugitzen denari...
- **Piscis** Lagunartean gauza handiak egin ditzakezu.

■ Hitz gurutzatuak

1	2		3	4	5	6	7
8			9				
10		11				12	
13					14		
15				16			
17				18			19
	20						

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Ama izatearen nolakotasuna. 8. Eguzkiaren jainko egiptoarra. 9. (Ald.) Arazo, auzi. 10. Estualdi. 12. Zilarra. 13. Eba-kitako gariak egiten den sorta. 14. Eguzki. 15. Axolagabekeriazko jokaera gaitzezgarria. 17. Plaza, feria, azoka. 18. Norbaiti zerbait eman nahi diogula adierazteko hitza. 20. Argentinako hiria, Parana ibaiaren ertzean.

Bertikalak 1. SUDCeko lehendakariaren abizena. 2. Baserri, etxe, lokal eta abar erretan hartzen duen pertsona. 3. Zapatak orpo aldean izaten duen azpiko atala. 4. Guakamaio. 5. Sevillako ibilgailuetan. 6. Ufa egiten duena. 7. Alfer. 11. Lurralde berean bizi den pertsona-taldea, berezko kultura eta hizkuntza daukana. 14. Erori aditzaren infinitiboa. 16. Hitzak lotzen dituen juntagailua. 19. Jupiterren lehen satelitea, Galileok aurkitua 1610ean.

Horizontalak: 1. Amatasun. 8. Ra. 9. (Ald.) Afera. 10. Kinka. 12. Ag. 13. Aza. 14. Eki. 15. Uztie-
 ra. 17. Zel. 18. Tort. 20. Rosario.
 Bertikalak: 1. Arkauz. 2. Maizter. 3. Takoi. 4. Ara. 5. Se. 6. Ufakar. 7. Nagi. 11. Nazio. 14. Eror.
 16. Eta. 19. Io.



Lan eskaintzak

ATB • Arrasate Telebista Bi teknikari

Baldintzak

- Euskara ondo menderatzea
- Ikus-entzunezkoen ezagutza
- Gidatzeko baimena eta autoa

Langunearen betebeharrak

- Astebukaera eta jaiegunetan ATBko teknikari lana

Curriculumak aurkezteko epea
URTARRILAREN 30EAN BUKATUKO DA

ARKO • Arrasate Komunikabideak Gerentea

Ezinbesteko baldintza

- Euskara ondo menperatzea

Baloratuko direnak

- Administrazioan edo eta ekonomian titulazioa eta esperientzia
- Komunikabideen esparru ezagutzea
- Lantaldeak antolatze eta zuzentzeko gaitasuna
- Harremanetarako erraztasuna
- Komertzialgintzan esperientzia

Curriculumak aurkezteko epea
OTSAILAREN 12AN BUKATUKO DA

Curriculumak ARKOko Administrazio bulegoan jasoko dira

Otalora Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)


Tel.: 79 02 26

Elene Alberdi, *Munduari Buel*taka saioko aurkezle berria

Koke Lasa ATBn, Himalayako Manaslu menditik bueltan

Koke Lasa mendizale ormaiztegitarra izango da asteazkenean, *Munduari Buel*taka saioko gonbidatua. Kokek 8.163 metroko Manaslu mendiaren gailurra zapaldu zuen iazko urriaren 8an. Arabako espedizioaren partaide zen, Juanito Oiartzabal, Iñaki Kerejeta eta Natxo Fernándezekin batera.

Koke Lasak 38 urte ditu, txirrindularitzan eta eskubaloian aritutakoa da eta 18 urte betetakoan mendirako bidean jarri zen buru-belarri. Zortzi mila metrotik gorako Cho Oyu, Hidden Peak eta Manaslu mendiak igo ditu, besteak beste. Asteazkenean, *Munduari Buel*taka saioan, Manaslun bizi izandakoa azalduko du, orduko irudiak erakutsi bitartean.



Aurkezle berria ELENE ALBERDI

22 urte, plaentxiarra
kazetaria

Arrasate Irratian, Euskadi Irratian eta ETBko *Bertatik Bertara* saioan entzun eta ikus dezakegu.

97ko Sanjoanetan jaietako saio berezia aurkeztu zuen ATBn.

Kultura aztergai ATBko saio berrian

Laster saio berria izango dugu ATBn. Unai Iparragirre, Aitziber Langaran eta Oihana Altunak aurkeztuta, kultura gaiak jorratuko ditu: zinea, antzerkia, margoa, argazkigintza, musika... Datorren astean, berri gehiago.

Kukaratxa Motel, finalaren atarian

Otsailaren 12an jokatuko da *Kukaratxa Motel* lehiaketako finala. Saria ez da nolana hiko: Port Aventura bidaia, talde irabazlearentzat eta laguntzaile heldu batentzat.

Otsailaren 19an fase berrian sartuko da ATBko lehiaketa. Parte hartu nahi duten taldeek telebistara bertara etorri edo 77 06 90 telefonon eman dezakete izena.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 31	ASTELEHENA, 2	ASTEARTEA, 3	ASTEAZKENA, 4	OSTEGUNA, 5	OSTIRALA, 6
Astean zehar eskainitako saioarik interesgarrien errepika.	13:30 Astebete. (Errepika.)	13:30 Mondrasport. (Errepika.)	13:30 Lotsa barik. (Errepika.)	13:30 Munduari buel taka. (Errepika.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepika.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. <i>Betirte Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munain.</i> Gaztetoentzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. <i>Itxaro Zubillaga.</i> Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak..., eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Lotsa Barik. Gonbidatua: Iban González, <i>Ekon</i> taldeko abeslaria.	21:30 Munduari Buel taka. <i>Elene Alberdi.</i> Gonbidatua: Koke Lasa.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete. <i>Paxi Montero.</i> Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 Lotsa Barik. Gonbidatua: Saul Osinaga, <i>Iskanbila</i> taldeko abeslaria.				21:30 Kukaratxa Motel.	

I 959ko irailaren 20an omenaldi handia egin zitzaion Bedoñan *Loramendi* poetari. Euskaltzaindiko ordezkariak izan ziren, poetak, bertsolariak, dantzariak... eta baita Arrasateko abesbatza ere. *A capella* abestu zuten egun hartan, David Arzamendi, Parrokiako bigarren organo jolearen zuzendari-tzapean. Nahiz eta hemen gutxi batzuk agertu, guztira hogeit bat lagunek kantatu zuten Bedoñan. Ezkerretik hasita, Esteban Pagoaga, Juan Bautista Usandizaga, Fernando Aranburu *Fertxu*, Sabin Zabala *Mallabi*, Francisco Nafarrate, Jose Luis Loiti, Tomas Alzola, Jesus Palacios eta Jesus Barrutia. Ez dugu jakiterik izan mutikoa nor den.

Berriematea: David Arzamendi



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.
Lorazaintzako
mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz

Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

AEROBICa

Goizez eta arratsaldez
Ikasiak eta hasi berriak

KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)
Gaztetxoak (10 eta 13 urte)
Helduak

GIMNASIA

3.adineko mantenimendua.
Goizez eta arratsaldez

SAUNA

SOLARIUMa

MASAJEA

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Drenaje linfatikoa
- Kiromasajea
- Ziatikak

MUSKULAZIOA

- Kulturismoa
- Kirol prestakuntza
- Fitness
- Zaurien errehabilitazioa

SQUASH



Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31

Gida 98



Arrasate • Leintz Gatzaga
Aretxabaleta • Eskoriatza

ARKO (Arrasate Komunikabideak)

Aste honetan Gida 98 zure postontzian!

Ez baduzu jasotzen,
dei egin 77 08 15 telefonora
edo zuzenean ARKOra etorri
(Otalora Lizentziatua, 31
ARRASATE).


IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



Errealitate
bihurtzen
diren
ilusioak...



FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42